DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Gune Publikoen Batzordea. Obrak eta Hiri Zerbitzuak
Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

## 23. AKTA

## Gune Publikoen Batzordea. Obrak eta Hiri Zerbitzuak

**Batzar mota:** Ohikoa

**Eguna:** 2025-06-16

**Ordua:** 12:16 h

**Tokia:** Loretope aretoa

**Batzordeburua**: Juan Marrero Vizcaino

**Etorritakoak:**

**Zinegotziak**:

Maria Jesus Idoeta Madariaga *(12:38an bilkurara bertaratu da)*

Nekane Arzallus Iturriza *(12:19an bilkurara bertaratu da eta ondoren atera da 12:25etik 12:27ra arte eta 12:50etik 13:26ra arte)*

Olatz Yarza Garagorri

Martin Ibabe Eceiza

Jabier Vitoria Roma

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego

Itziar Iturri Arrazola *(14:01etik 14:03ra arte bilkuratik atera da)*

Carlos Garcia Hernandez

Jorge Mota Iglesias

Victor Lasa Briz *(14:15ean bilkurara bertaratu da)*

**Beste zinegotzi batzuk**:

Jon Insausti Maisterrena *(12:38an bilkuratik erretiratu da)*

*Arantza Gonzalez Garcia (gai zerrendaren 39. puntua aztertu ondoren bilkuratik joan da)*

**Idazkaria:** Ana Perez Galarraga, Idazkari Nagusiak eskuordeturik.

## ACTA N.º 23

## Comisión de Espacio Público. Obras y Servicios Urbanos

**Sesión:** Ordinaria

**Día:** 16-06-2025

**Hora:** 12:16 h

**Lugar:** Sala Loretope

**Preside:** Juan Marrero Vizcaíno

**Asistentes:**

**Concejales y concejalas**:

María Jesús Idoeta Madariaga *(se incorpora a la sesión a las 12:38 h)*

Nekane Arzallus Iturriza *(se incorpora a la sesión a las 12:19 h y posteriormente se ausenta de 12:25 h a 12:27 h y de 12:50 h a 13:26 h)*

Olatz Yarza Garagorri

Martín Ibabe Eceiza

Jabier Vitoria Roma

Garbiñe Alkiza López de Samaniego

Itziar Iturri Arrazola *(se ausenta de la sesión de 14:01 h a 14:03 h)*

Carlos García Hernández

Jorge Mota Iglesias

Víctor Lasa Briz *(se incorpora a la sesión a las 14:15 h)*

**Otros concejales y concejalas**:

Jon Insausti Maisterrena *(abandona la sesión a las 12:38 h)*

*Arantza González García (abandona la sesión después de tratarse el punto n.º 39 del orden del día)*

**Secretaria:** Ana Pérez Galarraga, por delegación de la Secretaria General.

12447n II

BATZORDEBURUAK bilkura hasi dela adierazi ondoren, ondoko GAI-ZERRENDA hau lantzeari ekin diote:

Declarada abierta la sesión por la PRESIDENCIA, se pasa a desarrollar el siguiente ORDEN DEL DÍA:

**1.- 2025eko maiatzaren 19an izandako bileraren akta irakurri eta onartzea, ontzat joz gero.**

**1.- Lectura y aprobación, si procede, del acta de la sesión celebrada el día 19 de mayo de 2025.**

Bozketa egin eta aho batez onartu dute 22. akta, 2025eko maiatzaren 19an egindako bilerari dagokiona.

Se aprueba por unanimidad el acta número 22, correspondiente a la sesión celebrada el día 19 de mayo de 2025.

* * * *

Bertaratutako guztien adostasunaz, batzordeburuak 2. eta 3. gaiak batera jorratzea erabaki du.

Con la conformidad de todos/as los y las presentes, el Presidente decide tratar de forma conjunta los asuntos n.º 2 y n.º 3.

* * * *

**2.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Ametzagaina Parkeari buruzkoa.**

**2.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre Parque de Ametzagaina.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

“Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Ametzagaina parkeari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Ametzagaina parkea ez da horren eremu segurua. Azken hilabeteotan hainbat kokaleku agertu dira, eta bertan bizi direnek parkeko erabiltzaileak beldurtzen dituzte askotan. Parkean jolasten eta elkartzen diren Intxaurrondoko gazteak eta haurrak beldur dira, ez dakitelako zer gerta dakiekeen.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez da bermatzen Ametzagaina parkeko erabiltzaileen segurtasuna eta lasaitasuna?

Donostia, 2025eko ekainaren 6a

Borja Corominas Fisas
Udal Talde Popularraren bozeramailea”

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre Parque de Ametzagaina.

JUSTIFICACIÓN

El Parque de Ametzagaina se ha convertido en una zona menos segura. Han aparecido en los últimos meses varios asentamientos cuyos moradores intimidan en muchas ocasiones a los usuarios del parque. Los jóvenes y niños de Intxaurrondo que juegan y se reúnen en el parque tienen miedo de lo que les pueda pasar.

Por estos motivos presentamos la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que no se garantiza la seguridad y tranquilidad de los paseantes y usuarios del Parque de Ametzagaina?

En San Sebastián, a 6 de Junio de 2025

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular”

**Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Ametzagainako begiralekuari buruzkoa.**

**Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el Mirador de Ametzagaina.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

“Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Ametzagainako begiralekuari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Denbora gutxian, begiratoki garbi eta polit bat izatetik –esertzeko bankuak eta ura ematen duen iturria dituena–, erabateko utzikeria egoeran dagoen begiraleku bat izatera pasa gara –lurrean pintadak dituena–.

Intxaurrondoko bizilagunek asko bisitatzen duten parkea da Ametzagaina. Era berean, senideek Txara egoitzako erabiltzaileak bertara eramaten dituzte paseatzera. Parkeko begiralekua atsedengune ia derrigorrezkoa da, eta erabiltzaile askok atseden hartzen dute bertan edo, besterik gabe, bertan gelditzen dira bistez gozatzeko.

Intxaurrondoko bizilagunek ez dute horrelako egoeran dauden parke eta begiralekurik merezi.

Horregatik, honako hau aurkezten dugu:

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez da garbitzen eta txukuntzen Ametzagainako parkeko begiralekua?

2. Eginbiderik abian jarri al da parkearen bandalizazioaren arduradunen aurka?

Donostia, 2025eko ekainaren 6an

Borja Corominas Fisas
Udal Talde Popularraren bozeramailea”

Carlos Garcia eta Martin Ibabe jaunek hitz egin dute. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(12:19an Nekane Arzallus andrea bilkurara bertaratu da)*

**3.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Ametzagainako begiralekuari buruzkoa.**

Gai zerrendako 3. puntua 2. puntuarekin batera aztertua izan zen.

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre Mirador de Ametzagaina.

JUSTIFICACIÓN

En poco tiempo se ha pasado de tener un mirador limpio, bonito, con bancos para sentarse, una fuente con agua a un estado de absoluta dejadez, con pintadas en el suelo.

Ametzagaina es un parque muy visitado por los vecinos de Intxaurrondo. También acuden al parque familiares que llevan de paseo a usuarios de la Residencia Txara. El mirador del parque es un punto de descanso casi obligado en el que muchos usuarios se sientan a descansar o simplemente se paran para disfrutar de las vistas.

Los vecinos de Intxaurrondo no merecen un parque y un mirador en el estado en el que está.

Por estos motivos presentamos la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que no se adecenta y limpia el Mirador del parque de Ametzagaina?

2. ¿Se ha iniciado alguna diligencia contra los responsables de la vandalización del parque?

En San Sebastián, a 6 de Junio de 2025

Borja Corominas Fisas,
Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular”

Intervienen los Sres. García Hernández e Ibabe Eceiza, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 12:19 h la Sra. Arzallus Iturriza se incorpora a la sesión)*

**3.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el Mirador de Ametzagaina.**

El punto n.º 3 del Orden del Día se trató de manera conjunta con el punto n.º 2.

**4.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Giuseppe Verdi Plazari buruzkoa.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

"Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Giuseppe Verdi plazari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Giuseppe Verdi plazako lorategi-eremuetan ez dira mantentze- eta inausketa-lanak behar bezala egiten. Parterreetan zaborra pilatzen da, eta bizilagunek arratoiak ere badaudela salatzen dute.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez dira maizago egiten mantentze- eta inausketa-lanak Giuseppe Verdi plazan eta Loiolako Erriberako plaza eta lorategi guztietan?

Donostia, 2025eko ekainaren 6a

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea"

Carlos Garcia eta Jorge Mota jaunek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**4.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la Plaza Giuseppe Verdi.**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

"Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre Plaza Giuseppe Verdi.

JUSTIFICACIÓN

La zona ajardinada de la Plaza Giuseppe Verdi tiene un mantenimiento y poda muy deficiente. En los parterres se acumula la basura y los vecinos denuncian la existencia incluso de ratas.

Por estos motivos presentamos la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que no se lleva a cabo tareas de mantenimiento y poda de manera más regular en la Plaza Giuseppe Verdi y en todas las plazas y jardines de Riberas de Loiola?

En San Sebastián, a 6 de Junio de 2025

Borja Corominas Fisas,
Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular"

Intervienen en este punto los Sres. García Hernández y Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**5.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Garberako Dbiziko geltokiari buruzkoa.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

"Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluaren babesean, Garberan Dbizi geltoki bat jartzeari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Intxaurrondoko bizilagunek Dbizi geltoki baten hutsunea nabaritzen dute Garbera merkataritza gunean, eta Sagastieder plazako geltokian bizikleta elektrikoak maizago birjartzea ere, hala, Dbizi

**5.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre estación de Dbizi en Garbera.**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

"Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre estación Dbizi en Garbera.

JUSTIFICACIÓN

Los vecinos de Intxaurrondo echan de menos una estación de Dbizi en el Centro Comercial de Garbera y una mayor frecuencia de reposición de bicis eléctricas de Dbizi en la estación de la Plaza

sistema Hego Intxaurrondo benetan eraginkorra izan dadin, auzo garaia baita. Gainera, oso ohikoa da ordu jakin batzuetan Intxaurrondoko hiru geltokietan bizikletarik ez egotea.

Sagastieder para que el sistema de Dbizi sea realmente efectivo en un barrio alto como es Intxaurrondo Sur. Es muy habitual que a determinadas horas no haya ninguna bici disponible en ninguna de las tres estaciones de Intxaurrondo.

Hori dela eta, hauxe da gure

Por estos motivos presentamos la siguiente

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez da instalatzen Dbizi geltoki bat bat Garbera merkataritza gunean?
2. Zergatik ez da bermatzen bizikleta elektrikoen presentzia hiriko auzo garaietako Dbizi geltokietan?

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que no se instala una estación de Dbizi en el Centro Comercial de Garbera?
2. ¿Cuáles son los motivos por los que no garantiza la presencia de bicicletas eléctricas en las estaciones de Dbizi de los barrios altos de la ciudad?

Donostia, 2025eko ekainaren 6a

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”

En San Sebastián, a 6 de Junio de 2025

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular”

Olatz Yarza andreak eta Jorge Mota jaunak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto la Sra. Yarza Garagorri y el Sr. Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**6.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Otxoki Pasealekuaren utzikeria egoeraren gainean.**

**6.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el abandono del Paseo de Otxoki.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

“Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, Otxoki pasealekuaren utzikeria egoeraren inguruko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre abandono de Paseo de Otxoki.

JUSTIFIKAZIOA

Udalak oso utzita dauka Intxaurrondoko Otxoki pasealekua. Bizilagunek denbora daramate hobekuntzak eta gutxieneko mantentze-lanak eskatzen, baina ez dute inolako erantzunik jaso. Otxoki pasealekuaren inguruko kaleak oso egoera txarrean daude: garbitasuna falta da, baita hiri-altzariak, argitasuna, iturriak eta segurtasuna ere (ibilgailuetan lapurretak oso maiz gertatzen dira)...

JUSTIFICACIÓN

La zona de Paseo de Otxoki, en Intxaurrondo, sufre una preocupante dejadez por parte del Ayuntamiento. Los vecinos llevan tiempo reclamando mejoras y un mínimo mantenimiento sin obtener ninguna respuesta. Las calles del entorno del paseo de Otxoki están en muy mal estado, falta limpieza, mobiliario urbano, luminosidad, fuentes de agua, seguridad (se producen robos en vehículos con demasiada frecuencia)...

Hori dela eta, hauxe da gure

Por estos motivos presentamos la siguiente

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez da plan bat abian jartzen, Intxaurrondon Otxoki pasealekua kokatuta dagoen eremuaren erabat birgaitzeko?

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que no se inicia un Plan de Rehabilitación Integral de la zona del Paseo de Otxoki, en el Barrio de Intxaurrondo?

Donostia, 2025eko ekainaren 6a

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea"

Carlos Garcia eta Jorge Mota jaunek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(12:25ean Nekane Arzallus andrea bilkuratik atera da)*

**7.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Kutraia iturriari buruzkoa.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau azaldu du:

"Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Kutraiako iturriari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Urte askoan, Donostiako emakume asko Ulia mendiko Kutraiako iturrira joaten ziren arropa garbitzera. Gure hiriko iraganaren lekuko mutua da iturri hori, eta utzikeria-egoera nabarmenean egoteaz gain, bertan ez dago inolako azalpenik egun erabat utzita dagoen iturriaren funtzioa zein zen ezagutzeko.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Udalak zergatik ez du Kutraiako iturriaren balioa azpimarratzen?

2. Udalak zergatik ez ditu lehengoratzen Uliako Kutraiako iturria eta Zilarreko Itsasargiaren ibilbideko gainerako elementu arkitektonikoak?

Donostia, 2025eko ekainaren 6a

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea"

Carlos Garcia jaunak hitz egin du puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

En San Sebastián, a 6 de Junio de 2025

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular"

Intervienen en este punto los Sres. García Hernández y Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 12:25 h la Sra. Arzallus Iturriza se retira de la sesión)*

**7.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la fuente de Kutraia.**

El Sr. Mota Iglesias expone la siguiente interpelación:

"Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la fuente de Kutraia.

JUSTIFICACIÓN

La fuente de Kutraia, en Ulia, fue durante muchos años el lavadero donde muchos mujeres donostiarras iban a lavar la ropa. Es testigo mudo del pasado de nuestra ciudad y no solo está en un estado de abandono considerable, sino que ni siquiera hay una explicación en el entorno que explique cuál era la función de la fuente ahora abandonada.

Por estos motivos presentamos la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Ayuntamiento no pone en valor la fuente de Kutraia?

2. ¿Cuáles son los motivos por los que el Ayuntamiento no restaura la fuente de la Kutraia y el resto de elementos arquitectónicos del paseo de faro de la Plata en Ulia?

En San Sebastián, a 6 de Junio de 2025

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular"

Interviene en este punto el Sr. García Hernández, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(12:27an Nekane Arzallus andrea bilkurara itzuli da)*

*(A las 12:27 h la Sra. Arzallus Iturriza se reincorpora a la sesión)*

**8.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Argel Pasealekuan abiadura mugatzeari buruzkoa.**

**8.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la limitación de velocidad en Paseo de Argel.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

"Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, Arjel pasealekuan abiadura mugatzeari buruzko INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

"Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre limitación de velocidad en Paseo Argel.

JUSTIFIKAZIOA

JUSTIFICACIÓN

Arjel pasealekua kale oso estua da, eta autoak abiadura handian igarotzen dira bertatik. Komenigarria litzateke errepidean elementuren bat jartzea, gidariak beren ibilgailuen abiadura murriztera bultzatzeko.

El Paseo de Argel, es una calle muy estrecha y los coches bajan a mucha velocidad. Sería conveniente instalar algún elemento en la carretera que induzca a los conductores a reducir la velocidad de sus vehículos.

Aukera bat izango litzateke Arjel pasealekuko 6. zenbakitik pixka bat gorago dagoen zebra-bidearen parean sakangune bat jartzea, baina hori iradokizun bat baino ez da.

Una posibilidad sería instalar un badén a la altura del paso de cebra que hay un poco más arriba de Argel 6, pero eso es sólo una sugerencia.

Hori dela eta, hauxe da gure

Por estos motivos presentamos la siguiente

INTERPELAZIOA

INTERPELACIÓN

1. Zergatik ez da jarri ibilgailuen abiadura mugatzeko elementurik Arjel pasealekuan, batez ere Otxoki pasealekuko norabidean dagoen erreian, aldapa behera baita?

1. ¿Cuáles son los motivos por los que no se ha instalado algún elemento en la calzada para limitar la velocidad de los vehículos en Paseo de Argel, sobre todo en el carril en dirección al Paseo de Otxoki, que es cuesta abajo?

Donostia, 2025eko ekainaren 6a

En San Sebastián, a 6 de Junio de 2025

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea"

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular"

Olatz Yarza andreak eta Jorge Mota jaunak hitz egin dute puntu hauetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en estos puntos la Sra. Yarza Garagorri y el Sr. Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**9.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Siustegi Parkeko argiztapenaren gainean.**

**9.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la iluminación de Parque Siustegi.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

"Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, Siustegi parkeko argiztapenari

"Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al

buruzko INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Intxaurrondo auzoan, bizilagunak kexu dira Siustegi parkean, Otxoki pasealekuranzko norabidean, ez dagoelako nahikoa argirik. Arjel pasealekuan, Kultur Etxera doan aldapan oso argi gutxi dago, eta Arjel pasealekura iritsita, ez dago batere argirik.

Topoaren erabiltzaile asko eremu horretatik igarotzen dira, eta bizilagun askok ere parke horretan paseatzen dute txakurra.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez da aztertu hartu Siustegi parkearen ingurua behar bezala argiztatzeko aukera?

Donostia, 2025eko ekainaren 6a

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea"

Carlos Garcia eta Jorge Mota jaunek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre iluminación Parque Siustegi.

JUSTIFICACIÓN

Los vecinos se quejan de la falta de luz en la zona del parque Siustegi, hacia Otxoki, en el Barrio de Intxaurrondo. Bajando la cuesta que hay en el Centro Cívico hacia el Paseo de Argel hay muy poca luz, y llegando ya al paseo de Argel no hay nada de luz.

Muchos usuarios del topo bajan por esa zona y muchos vecinos pasean también a sus perros en ese parque.

Por estos motivos presentamos la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que no se ha considerado iluminar debidamente el entorno del Parque Siustegi?

En San Sebastián, a 6 de Junio de 2025

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular"

Intervienen en este punto los Sres. García Hernández y Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**10.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Intxaurrondo auzoan inausketa faltaren gainean.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

"Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, Intxaurrondon inausketa-lan nahikoa ez egiteari buruzko INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Intxaurrondoko bizilagun asko kexu dira lorategien mantentze-egoeragatik eta sastrakak auzo osoan kontrolik gabe hazten ari direlako. Parkeetan eta lorategietan mantentze-lan egokien faltaz konturatzen dira.

Horregatik, hau da gure

INTERPELAZIOA

**10.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la falta de poda en el barrio de Intxaurrondo.**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

"Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la falta de poda en el barrio de Intxaurrondo.

JUSTIFICACIÓN

Son muchos los vecinos del barrio de Intxaurrondo que se quejan por cómo están los jardines y por la maleza que crece sin control por todo el barrio. Echan en falta un mantenimiento correcto de sus parques y jardines.

Esta es la razón por la que presentamos la siguiente

INTERPELACIÓN

1. Zergatik ez da inausketa-lanik egiten Intxaurrondo auzoan?

2. Noiz egin dira azken aldiz inausketa-lanak auzo horretan?

3. Noiz egingo dituzue lan horiek?

4. Hori egiteko asmorik ez badago, zergatik?

Donostia, 2025eko ekainaren 6a

Borja Corominas Fisas
Udal Talde Popularraren bozeramailea"

Carlos Garcia jaunak hitz egin du puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

1. ¿Cuáles son los motivos por los que no se realiza la poda en el barrio de Intxaurrondo?

2. ¿Cuándo ha sido la última vez que se ha procedido a podar en este barrio?

3. ¿Cuándo lo van a hacer?

4. En caso de no hacerlo ¿cuáles son las razones?

En San Sebastián, a 6 de junio de 2025

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular"

Interviene en este punto el Sr. García Hernández, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**11.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Sagastieder Plazako haur-parkeari buruzkoa.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau azaldu du:

"Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, Sagastieder plazako haurrentzako parkeari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Hau da Sagastieder plazako haurrentzako parkearen itxura. Gomazko gainazal nagusia oso higatuta dago eta arriskutsua da bertan jolasten duten haurrentzat.

Horregatik, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Zergatik dago haurrentzako parke hori egoera horretan?

2. Zer egiteko asmoa duzue hori konpontzeko?

3. Noiz?

4. Parke hori konpontzeko asmorik ez badago, zergatik?

Donostia, 2025eko ekainaren 6a

Borja Corominas Fisas
Udal Talde Popularraren bozeramailea"

Carlos Garcia eta Jorge Mota jaunek hitz egin dute

**11.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el parque infantil de la Plaza Sagastieder.**

El Sr. Mota Iglesias expone la siguiente interpelación:

"Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre el parque infantil de la plaza Sagastieder.

JUSTIFICACIÓN

Este es el aspecto que presenta el parque infantil de la plaza Sagastieder. El desgaste de la superficie "gomosa" es más que evidente y supone un peligro para los niños y niñas que juegan en este parque infantil.

Esta es la razón por la que presentamos la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que este parque infantil presenta estas condiciones?

2. ¿Qué piensan hacer al respecto?

3. ¿Cuándo?

4. En caso de no arreglarlo ¿cuáles son las razones?

En San Sebastián, a 6 de junio de 2025

Borja Corominas Fisas,
Portavoz del Grupo Municipal del Partido Popular"

Intervienen en este punto los Sres. García Hernández

puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

y Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**12.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Hondarribia kaleko 20. zenbakian farola baten faltari buruzkoa.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau azaldu du:

"Borja Corominas Fisas Talde Popularraren bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak), Hondarribia kaleko 20. zenbakian farola bat falta dela eta.

JUSTIFIKAZIOA

Hormako farolek Donostia erdialdeko kale asko argiztatzen dituzte. Horixe da Hondarribia kalearen kasua, baina, 20. zenbakiaren parean, urteak dira horma horretan egon beharko lukeen farola falta dela.

Inguruko merkatariak eta bizilagunak kexu dira Hondarribia kaleko tarte horretako argiztapen faltagatik. Kontatu digutenez, orain dela urte batzuk Udaleko langile batzuk establezimendu batean agertu ziren, hura berriro instalatzeko asmoz, baina ez dute horretaz ezer gehiago jakin.

Horregatik, hau da talde honek aurkezten duen

INTERPELAZIOA

1. Zer dela-eta falta da hormako farola bat Hondarribia kaleko 20. zenbakian?
2. Ba al duzue asmorik Hondarribia kaleko tarte horretan farola berri bat jarri eta argiztapena hobetzeko ?
3. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?
4. Baiezko erantzuna eman badute, noiz gauzatuko da aldaketa?

Donostia, 2025eko ekainaren 6a

Borja Corominas Fisas
Udal Talde Popularraren bozeramailea"

Carlos Garcia eta Jorge Mota jaunek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**12.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la falta de una farola en la calle Fuenterrabía nº20.**

El Sr. Mota Iglesias expone la siguiente interpelación:

"Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la falta de una farola en la calle Fuenterrabia nº20.

JUSTIFICACIÓN

Las farolas de pared iluminan muchas calles del centro de San Sebastián. Es el caso de la calle Fuenterrabia, pero a la altura del n.º 20 la farola que debería estar en esa pared lleva años desaparecida.

Los comerciantes de la zona, así como los vecinos, se quejan de la falta de iluminación en este tramo de la calle Fuenterrabía. Según nos han contado hace unos años se presentaron en uno de los establecimientos trabajadores del ayuntamiento con la intención de instalarla de nuevo, pero nada más han sabido.

Esta es la razón por la que presentamos la siguiente.

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que falta una farola de pared en la calle Fuenterrabia n.º 20?
2. ¿Tienen intención de mejorar la iluminación de este tramo de la calle Fuenterrabía colocando una nueva farola?
3. En caso negativo ¿cuáles son las razones?
4. En caso afirmativo ¿Cuándo lo van a hacer?

En San Sebastián, a 6 de junio de 2025

Borja Corominas Fisas,
Portavoz del Grupo Municipal Popular"

Intervienen en este punto los Sres. García Hernández y Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**13.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Artzai Oneko aparkalekuaren irisgarritasunari buruzkoa.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau azaldu du:

“Borja Corominas Fisas Talde Popularraren bozeramaileak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Artzain Onaren aparkalekuko irisgarritasunari buruzko INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak).

JUSTIFIKAZIOA

San Martin kalean, Artzain Onaren plazaren parean, obrak aurrera doaz, baina ez dago inolako esku-hartze, obra edo antzekorik aurreikusita Artzain Onaren aparkalekurako eskatu eta eskatu ari diren igogailuari dagokionez.

Ez dakigu ezer igogailuaz, ez proiekturik baden ala ez, ez noiz gauzatuko den, eta egoera horrek ernegatu egiten ditu aparkaleku horretan plaza duten donostiarrak; izan ere, horietako asko inguruan bizi dira, mobilizazio-arazoak dituzte edo mugikortasun-arazoak dituzten senideak dituzte.

Duela hilabete batzuk, alkateak ziurtatu zuen Artzain Onaren plaza oinezkoen gune bihurtzeko lanak "2025ean hasi eta amaituko direla", eta, beraz, pentsatzen dugu aurten konponduko direla Artzain Onaren aparkalekuko irisgarritasun-arazoak eta plazaren gainazaleraino iristen den igogailua ere aurten instalatuko dutela.

Urtearen erdialdean gaude, eta, adierazitako arrazoiengatik, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez dago berririk Artzain Onaren aparkalekuko irisgarritasuna hobetzeari buruz, kontuan hartuta, aurreikuspenen arabera, plaza hori aurten oinezkoen gune bihurtuko dela?

2. Izan duzue Artzain Onaren aparkalekuaren enpresa emakidadunaren (Mugaburu SL) berririk, edo bildu zarete haiekin, aparkalekuaren irisgarritasuna errealitate bihur dadin?

3. Erantzuna baiezkoa bada, zer pauso eman dituzue horretarako?

4. Hala ez bada, zergatik ez?

**13.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la accesibilidad en el parking del Buen Pastor.**

El Sr. Mota Iglesias expone la siguiente interpelación:

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la accesibilidad en el parking del Buen Pastor.

JUSTIFICACIÓN

Las obras que se están acometiendo en la calle San Martín, a la altura de la plaza del Buen Pastor avanzan, pero no hay visos de ninguna intervención, obra o similar en relación al más que demandado ascensor del parking del Buen Pastor.

Nada se sabe de la construcción de este ascensor, si hay proyecto o no, ni tiempos de ejecución, y esta situación desespera a todos los donostiarras que tienen plaza en este aparcamiento, muchos de ellos residentes en la zona, donostiarras con problemas de movilidad o con familiares con problemas de movilidad.

El alcalde aseguró hace unos meses que la peatonalización de la plaza del Buen Pastor “comenzará y terminará en 2025” por lo que entendemos que la solución de accesibilidad al parking del Buen Pastor y la instalación del ascensor que llegue a la superficie de la plaza será una realidad este mismo año.

Estamos ya a mitad de año y por estos motivos presentamos la siguiente

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que no hay noticias relacionadas con las mejoras de accesibildad al parking del Buen Pastor cuando ya se está hablando de que la peatonalización de la plaza se realizará este año?

2. ¿Han tenido noticias o se han reunido con la empresa concesionaria del aparcamiento del Buen Pastor (Mugaburu SL) para que la accesibilidad de éste sea una realidad?

3. En caso afirmativo ¿Qué van a hacer al respecto?

4. En caso negativo ¿Cuáles son las razones?

5. Ba al dakigu ezer enpresak Artzain Onaren aparkalekuko irisgarritasun-arazoak konpontzeko bazeukala esan zuen proiektuari buruz?

6. Horren inguruan ezer ez badakizue, gobernu-taldea harremanetan jarriko al da Mugaburu SLrekin, Artzain Onaren aparkalekua behingoz irisgarria izan dadin?

7. Zer egingo du hori konpontzeko?

Donostia, 2025eko ekainaren 6a

Borja Corominas Fisas
Udal Talde Popularraren bozeramailea"

5. ¿Se sabe algo del proyecto que dijo tener la empresa para solucionar los problemas de accesibilidad del aparcamiento del Buen Pastor?

6. Si no tienen noticia alguna ¿se van a poner en contacto con Mugaburu SL para insistir en que de una vez por todas el aparcamiento del Buen Pastor sea accesible?

7. ¿Qué piensa hacer al respecto?

En San Sebastián, a 6 de junio de 2025

Borja Corominas Fisas,
Portavoz del Grupo Municipal Popular"

Olatz Yarza andreak eta Jorge Mota jaunak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto la Sra. Yarza Garagorri y el Sr. Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**14.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Gernikako Arbola Pasealekua ez mantentzeaeren gainean.**

**14.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la falta de mantenimiento del Paseo Árbol de Gernika.**

Puntu hau erretiratua izan da.

Este punto ha sido retirado.

**15.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Txomin Enea auzoko espaloiak ez garbitzeari buruzkoa.**

**15.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la falta de limpieza de aceras en el barrio de Txomin Enea.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau azaldu du:

"Jorge Mota Iglesias Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, Txomin Enea auzoko espaloiak garbi ez daudelako, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

2018ko azaroan Txomin Enea auzoan lehen bizilagunak bizitzen hasi zirenetik, bizilagunak kexu dira, auzoa ez dagoelako garbi. Hasiera-hasieratik, arazoak egon dira zabor-bilketarekin: edukiontziak beti daude goraino beteta, espaloi berriak koipez beteta daude horregatik, eta lorategi berriak hondatuta daude, mantentze-faltagatik.

Azken hilabetean, gainera, bizilagunek ikusi dute Udaleko garbiketa-zerbitzuek presio-zurrustarekin garbitu dutela bankuen oinarriaren ingurua, baina eremu horretara bakarrik mugatu direla, eta gainerako eremuak ez dituztela behar bezala garbitu. Denborak aurrera egiten du, eta gainerako

El Sr. Mota Iglesias expone la siguiente interpelación:

"Jorge Mota Iglesias, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la falta de limpieza de aceras en el barrio de Txomin Enea.

JUSTIFICACIÓN

Los residentes de Txomin Enea llevan quejándose de la falta de limpieza del barrio desde que entraron a vivir los primeros vecinos en noviembre de 2018. Desde el principio se encontraron con problemas de recogida de basuras, contenedores siempre a rebosar, aceras nuevas llenas de grasa por este motivo, y jardines nuevos destrozados por falta de mantenimiento

En el último mes observan,además,como los servicios de limpieza municipales pasan con chorro a presión la base de los bancos, pero se limitan solo a esa zona, omitiendo de esa necesaria limpieza el resto de las zonas. Y pasan los días y siguen sin pasarla por el resto de zonas, tal y como puede apreciarse en la

eremuak ez dira presio-zurrustarekin garbitzen, atxikitako argazkian ikusten den moduan.”

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Gobernu Taldeak zergatik ez ditu auzoko espaloiak erabat garbitu?

2. Udal Gobernuak ba al du hori egiteko asmorik?

3. Erantzuna baiezkoa bada, noiz?

4. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik garbitu da espaloien eremu bat soilik?

Donostia, 2025eko ekainaren 6a

Jorge Mota Iglesias
Udaleko Talde Popularreko zinegotzia”

Carlos Garcia eta Jorge Mota jaunek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

fotografía adjunta.

Por esos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1 ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no ha realizado la limpieza completa de las aceras del barrio?

2 ¿Tiene el Gobierno Municipal intención de realizarlo?

3 En el caso de respuesta afirmativa, ¿cuándo?

4 En caso de respuesta negativa, ¿cuáles son los motivos por los que sólo se ha realizado la limpieza de una zona de las aceras?

San Sebastián, a 6 de junio de 2025

Jorge Mota Iglesias,
Concejal del Grupo Municipal Popular”

Intervienen en este punto los Sres. García Hernández y Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**16.- Interpelazioa, PP Taldeak aurkeztua, Madril Hiribideko autobus geralekuak Aita Donostia Plazaren parean dituen irisgarritasun arazoei buruzkoa.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau azaldu du:

“Talde Popularreko zinegotzi Jorge Mota Iglesiasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Madril hiribidean, Aita Donostia plazaren parean dagoen autobus-geralekuaren irisgarritasun-arazori buruzko INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Madril hiribidean, Aita Donostia plazaren parean kokatuta dagoen geralekuan (199 Anoeta geralekua) gurpil-aulkia erabiltzen duten eta hiri-autobusen erabiltzaileak diren mugikortasun urriko pertsonek autobusetik jaitsi behar badute, gidariari zaila egiten zaio arrapala jaistea, argazkietan ikusten den moduan, farola bat dagoelako, zuhaitz bat dagoelako (dagokion parterrearekin) eta markesina bera dagoelako, eta ondorioz, ezin da arrapala jaitsi.

**16.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre los problemas de accesibilidad de la parada de autobús de la Avenida de Madrid a la altura de la Plaza Aita Donostia.**

El Sr. Mota Iglesias expone la siguiente interpelación:

“Jorge Mota Iglesias, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre los problemas de accesibilidad de la parada de autobús de la Avenida de Madrid a la altura de la Plaza Aita Donostia.

JUSTIFICACIÓN

En la parada de autobús de la Avenida de Madrid frente a la plaza Aita Donostia (parada 199, Anoeta), las personas con movilidad reducida que utilizan silla de ruedas y son usuarias del mismo se encuentran con que cuando el autobús se detiene en la parada en la que tienen que bajarse, al chófer le resulta complicado bajar la rampa porque hay una farola, un árbol con su parterre correspondiente, una señal y la propia marquesina que impiden que se pueda bajar la rampa, tal y como puede apreciarse en las imágenes adjuntas.

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Gobernu Taldeak zergatik ez du inolako egokitzapenik egin geraleku horretako irisgarritasuna bermatzeko?
2. Udal Gobernuak ba al du hori egiteko asmorik?
3. Erantzuna baiezkoa bada, noiz?
4. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?
5. Gobernu Taldeak egin al du irisgarritasun-arazoak izan ditzaketen hiriko autobus-geralekuen irisgarritasunari buruzko azterlanik?
6. Erantzuna baiezkoa bada, bidaliko al zenigukete?
7. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

Donostia, 2025eko ekainaren 6an

Jorge Mota Iglesias,
Udal Talde Popularreko zinegotzia"

Olatz Yarza andreak hitz egin du puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(12:38an Maria Jesus Idoeta andrea bilkurara bertaratu da eta Jon Insausti jauna joan da)*

**17.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, berdegunez estalita dauden Zuatzu Industrialdeko espaloiak ez zaintzeari buruzkoa.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau azaldu du:

"Talde Popularreko zinegotzi Jorge Mota Iglesias jaunak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Zuatzu industrialdeko espaloien mantentze-faltari buruzko interpelazio hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Por esos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no ha realizado ninguna adecuación de dicha parada para garantizar la accesibilidad de la misma?
2. ¿Tiene el Gobierno Municipal intención de realizarlo?
3. En el caso de respuesta afirmativa, ¿cuándo?
4. En caso de respuesta negativa, ¿cuáles son los motivos?
5. ¿Ha realizado el Equipo de Gobierno un estudio de la accesibilidad de las paradas de autobús urbanas que pudieran tener problemas de accesibilidad?
6. En caso de respuesta afirmativa, ¿nos lo podrían hacer llegar?
7. En caso de respuesta negativa, ¿cuáles son los motivos?

San Sebastián, a 6 de junio de 2025

Jorge Mota Iglesias,
Concejal del Grupo Municipal Popular"

Interviene en este punto la Sra. Yarza Garagorri, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 12:38 h la Sra. Idoeta Madariaga se incorpora a la sesión y el Sr. Insausti Maisterrena la abandona)*

**17.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la falta mantenimiento de las aceras del Polígono Zuatzu que se encuentran cubiertas de verdín.**

El Sr. Mota Iglesias expone la siguiente interpelación:

"Jorge Mota Iglesias,concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene el honor de presentar la siguiente Interpelación, al alcalde, D. Eneko Goia Laso, para su tratamiento en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos sobre falta de mantenimiento de las aceras del Polígono Zuatzu que se encuentran cubiertas de verdín.

JUSTIFICACIÓN

Zuatzu industrialdeko espaloien egoerari dagokionez, mantentze-falta nabarmena antzeman da; izan ere, espaloi horietan, oinezkoentzako hainbat gunetan, lika antzeman da.

Garbitasun eta mantentze-lan egokirik ezaren ondorioz metatzen da hezetasun eta landaredi irristakor hori, eta horrek benetan jar dezake arriskuan oinezkoen segurtasuna, bereziki euria egiten duen egunetan edo lurra bustita dagoenean, erorikoak eta bestelako istripuak eragin baititzake.

Egoera horrek, bide-segurtasuneko arazo bat sortzeaz gain, utzikeria-itxura ematen du, hain zuzen ere enpresa-jarduera egiten den leku batean, eta horrek eragin negatiboa du bai langileentzat, bai industrialdera doazen bisitarientzat.

Hori dela eta, hauxe da Talde Popularraren

INTERPELAZIOA

1. Gobernu-taldeak zergatik ez du lika garbitzen Zuatzu industrialdeko espaloietatik?
2. Eremu horren ikuskapenik edo balorazio teknikorik egin al da azken aldian?
3. Adierazi eremu horretarako garbiketa- eta mantentze-protokolorik dagoen, eta, hala bada, zer maiztasunekin egiten diren lan horiek.
4. Gobernu Taldeak aurreikusi al du berehalako jarduerarik lika kentzeko, eta horrela, erorikoak izateko arriskua murrizteko?
5. Erantzuna baiezkoa bada, noiz? Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

Donostia, 2025eko ekainaren 6an

Jorge Mota Iglesias
Udaleko Talde Popularreko zinegotzia"

Carlos Garcia jaunak hitz egin du puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Se ha observado una notable falta de mantenimiento en relación con el estado de las aceras del Polígono de Zuatzu, en las que se ha detectado la presencia de verdín en diversas zonas peatonales.

Esta acumulación de humedad y vegetación resbaladiza, aparentemente fruto de la falta de limpieza y mantenimiento adecuado supone un riesgo real para la seguridad de los viandantes, especialmente en días de lluvia o humedad, pudiendo provocar caídas y otros accidentes.

La situación descrita no solo genera un problema de seguridad vial, sino que también proyecta una imagen de abandono en una zona de actividad empresarial, afectando negativamente tanto a trabajadores como a visitantes del polígono.

Es por esto por lo que el Grupo Popular, presenta la siguiente.

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuál es el motivo por el cual el Equipo de Gobierno no mantiene las aceras del Poligono Industrial Zuatzu limpias de verdín?
2. ¿Se ha realizado alguna inspección o valoración técnica reciente sobre esta zona?
3. Indique si existen protocolos de limpieza y mantenimiento específico para esa zona y, en caso afirmativo, con qué frecuencia se llevan a cabo.
4. ¿Tiene el Equipo de Gobierno prevista alguna actuación inmediata para eliminar el verdín y reducir el riesgo de caídas?
5. En caso afirmativo ¿Cuándo?, en caso negativo ¿Por qué?

En San Sebastián, a 06 de junio de 2025

Jorge Mota Iglesias,
Concejal del Grupo Municipal Popular"

Interviene en este punto el Sr. García Hernández, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**18.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Olaeta parkeko urmaelaren zati bat estaltzen duten adarren inausketa faltari buruzkoa.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau azaldu du:

"Talde Popularreko zinegotzi Jorge Mota Iglesiasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Olaeta parkeko urmaela estaltzen duten

**18.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la falta de poda de las ramas que cubren parte del estanque del parque de Ferrerías.**

El Sr. Mota Iglesias expone la siguiente interpelación:

"Jorge Mota Iglesias, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente

adarrak ez inausteari buruzko INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Olaeta parkean, zuhaitz bat dago kokatuta urmaelaren ertzean, eta haren adarrak gehiegi hazi dira: urmaelaren zati handi bat estaltzen dute eta uretara ere sartzen dira.

Egoera horrek, inguruko estetikari eragiteaz gain, urmaela garbitzeko eta mantentzeko lanak oztopa ditzake, eta arriskuak sor ditzake parkeko bisitarientzat.

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Gobernu Taldeak zergatik ez ditu inausten Olaeta parkeko zuhaitz horretan gehiegi hazi diren adarrak, hain zuzen ere urmaelean sartzeraino?
2. Udal Gobernuak ba al du hori egiteko asmorik?
3. Erantzuna baiezkoa bada, noiz?
4. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

Donostia, 2025eko ekainaren 6an

Jorge Mota Iglesias
Udaleko Talde Popularreko zinegotzia”

Carlos Garcia eta Jorge Mota jaunek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**<u>19.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Kontxa Pasealekuko baldosen egoerari buruzkoa.</u>**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

“Talde Popularreko zinegotzi Jorge Mota Iglesiasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Kontxa pasealekuko baldosen egoerari buruzko INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Zerbitzuak) aztertzeko.

INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la falta de poda de las ramas que cubren parte del estanque del parque de Ferrerías.

JUSTIFICACIÓN

En el Parque de Ferrerías se encuentra un árbol situado al borde del estanque, cuyas ramas han crecido en exceso hasta el punto de cubrir una parte considerable del mismo, llegando incluso a introducirse dentro del agua.

Esta situación no solo afecta a la estética del entorno, sino que también puede dificultar la limpieza y mantenimiento del estanque y generar posibles riesgos para los visitantes del parque.

Por esos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no realiza la poda de las ramas del árbol que sobresalen de forma excesiva y se introducen en el agua del estanque del Parque de Ferrerias?
2. ¿Tiene el Gobierno Municipal intención de realizarlo?
3. En el caso de respuesta afirmativa, ¿cuándo?
4. En caso de respuesta negativa, ¿cuáles son los motivos?

San Sebastián, a 06 de junio de 2025

Jorge Mota Iglesias,
Concejal del Grupo Municipal  Popular”

Intervienen en este punto los Sres. García Hernández y Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**<u>19.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el estado de las baldosas del Paseo de La Concha.</u>**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

“Jorge Mota Iglesias,concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene el honor de presentar la siguiente Interpelación, al alcalde, D. Eneko Goia Laso, para su tratamiento en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos sobre el estado de las baldosas del Paseo de La Concha.

JUSTIFIKAZIOA

Duela gutxi, Kontxa pasealekuko zoladura erabat berritu da, bertako baldosa guztiak aldatuta. Hala ere, harrigarria eta kezkagarria da ikustea, duela gutxi egindako jarduketa bat izan arren, baldosa horietako asko askatuta daudela dagoeneko. Egoera hori are larriagoa da euri-egunetan, baldosen azpian sortzen diren zuloetan ura pilatzen baita, eta oinezkoek horien gainean zapaltzen dutenean zipriztinak sortzen baitira.

Hori dela eta, hauxe da Talde Popularraren

INTERPELAZIOA

1. Gobernu-taldeak zergatik ez ditu egoera ezin hobean mantentzen Kontxa pasealekuko baldosak?

2. Duela oso gutxi jarritako baldosak direla kontuan hartuta, nola liteke horietako batzuk dagoeneko askatuta egotea?

3. Nor arduratzen da obra hori gauzatzeaz eta obraren kalitatea kontrolatzeaz?

4. Zer neurri aurreikusten dira arazo hori konpontzeko eta zer epetan jardutea aurreikusten da oinezkoen segurtasuna eta erosotasuna bermatzeko?

Donostia, 2025eko ekainaren 6an

Jorge Mota Iglesias
Udaleko Talde Popularreko zinegotzia"

JUSTIFICACIÓN

Recientemente se ha llevado a cabo la renovación integral del pavimento del Paseo de La Concha, con la sustitución de todas las baldosas del mismo. Sin embargo, sorprende y preocupa comprobar que, a pesar de tratarse de una actuación reciente, un gran número de estas baldosas ya se encuentran sueltas. Esta situación se agrava especialmente en los días de lluvia, ya que los huecos que se generan bajo las baldosas acumulan agua, lo que provoca molestas salpicaduras cuando los viandantes pisan sobre ellas.

Es por esto por lo que el Grupo Popular, presenta la siguiente.

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuál es el motivo por el cual el Equipo de Gobierno no mantiene en perfecto estado las baldosas del Paseo de La Concha?

2. ¿Cómo es posible que unas baldosas prácticamente recién colocadas se encuentren ya sueltas?

3. ¿Quién es el responsable de la ejecución de esta obra y del control de calidad de la misma?

4. ¿Cuáles son las medidas previstas para subsanar este problema y en qué plazos se prevé actuar para garantizar la seguridad y la comodidad de los peatones?

En San Sebastián, a 06 de junio de 2025

Jorge Mota Iglesias,
Concejal del Grupo Municipal Popular"

Carlos Garcia jaunak hitz egin du puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Interviene en este punto el Sr. García Hernández, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**<u>20.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Eustasio Amilibia kalean banku publikoen gabeziari buruzkoa (7, 8 eta 9 zenbakiak).</u>**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

"Udal Talde Popularreko Jorge Mota Iglesiasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Eustasio Amilibia kalean (7, 8 eta 9 zenbakietan) banku publikorik ez egoteari buruzko interpelazio hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

**<u>20.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la ausencia de bancos públicos en la calle Eustasio Amilibia (números 7, 8 y 9).</u>**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

"Jorge Mota Iglesias,concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene el honor de presentar la siguiente Interpelación, al alcalde, D. Eneko Goia Laso, para su tratamiento en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos sobre la ausencia de bancos públicos en la calle Eustasio Amilibia (números 7, 8 y 9)

JUSTIFIKAZIOA

Eustasio Amilibia kaletik ibili ohi auzotarrek hiri-altzarien falta sumatzen dute kale horretako 7, 8 eta 9. zenbakien arteko zatian, zehazki banku publikoen falta.

Kaleko zati horretan egunero ibiltzen dira adineko pertsonak, mugikortasun urriko bizilagunak, haur txikiak dituzten gurasoak eta, oro har, oinezkoak, eta horiek guztiek ez dute atseden hartzeko espaziorik. Ondorioz, espazio publikoaren irisgarritasuna eta erabilera ekitatiboa mugatuta dago.

Bankuak instalatzeak, atseden hartzeko aukera emateaz gain, bizilagunen arteko bizikidetza, kolektibo zaurgarrien inklusioa eta hiri-inguruneko segurtasunaren eta ongizatearen pertzepzioa hobetzen ditu. Gainera, neurri erraza da, kostu apalekoa, eta berehalako gizarte-eragin positiboa du.

Hori dela eta, hauxe da Talde Popularraren

INTERPELAZIOA

1. Gobernu-taldeak zergatik ez ditu banku publikoak instalatzen Eustasio Amilibia kaleko 7., 8. eta 9. zenbakietan?
2. Udalak aurreikusita al dauka kale horretan banku publikoak instalatzea?
3. Hala bada, noiz?
4. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

Donostian, 2025eko maiatzaren 9a

Jorge Mota Iglesias,
Udal Talde Popularraren bozeramailea”

Carlos Garcia eta Jorge Mota jaunek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

JUSTIFICACIÓN

Los residentes y vecinos que transitan habitualmente por la calle Eustasio Amilibia, en el tramo comprendido entre los números 7, 8 y 9, echan en falta de mobiliario urbano, concretamente bancos públicos, en dicha zona.

Este tramo de la calle, transitado a diario por personas mayores, vecinos con movilidad reducida, madres y padres con niños pequeños, así como viandantes en general, carece de espacios donde poder descansar, lo cual supone una limitación para la accesibilidad y el uso equitativo del espacio público.

La instalación de bancos no solo cumple una función de descanso, sino que favorece la convivencia vecinal, la inclusión de colectivos vulnerables y mejora la percepción de seguridad y bienestar en el entorno urbano. Además, se trata de una medida sencilla, de bajo coste, y con un impacto social positivo inmediato.

Es por esto por lo que el Grupo Popular, presenta la siguiente.

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuál es el motivo por el cual el Equipo de Gobierno no instala bancos públicos en la calle Eustasio Amilibia números 7, 8 y 9?
2. ¿Tiene previsto el Ayuntamiento instalar los bancos públicos en la mencionada calle?
3. En caso afirmativo, ¿cuándo?
4. En caso negativo ¿cuál es el motivo?

En San Sebastián, a 06 de junio de 2025

Jorge Mota Iglesias,
Concejal del Grupo Municipal Popular”

Intervienen en este punto los Sres. García Hernández y Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**21.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Zuatzu Industrialdean txirringentzako aparkalekuen gabeziari buruzkoa.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

“Jorge Mota Iglesiasek, Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluaren babesean, Eneko Goia Laso alkateari

**21.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la falta de estacionamientos para bicicletas en el Polígono de Zuatzu.**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

“Jorge Mota Iglesias, concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, tiene el honor de presentar la

honako interpelazio hau aurkezten dio, Zuatzu industrialdean bizikleta-aparkalekurik ez egoteari buruz, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Zuatzu industrialdean oinezkoen joan-etorri eta lan-jarduera handia dago, eta bertako bizilagunen, langileen eta bisitarien artean gero eta kezka handiagoa dago, eremu horretan bizikletak aparkatzeko azpiegitura egokirik ez dagoelako, nahiz eta erakundeek mugikortasun jasangarria sustatzen duten.

Egunero, ehunka pertsona joaten dira Zuatzu industrialdera, lanera, kudeaketak egitera edo bertan eskaintzen diren zerbitzuez gozatzera.

Askok bizikleta aukeratzen dute garraiobide ekologiko, eraginkor eta osasungarri gisa. Hala ere, bizikleta-aparkaleku seguru eta ikusgarririk ez dagoenez, ez da bizikletaren erabilera sustatzen, eta gainera, bizikletak modu inprobisatuan hiri-altzarietan giltzatu behar izaten direnez, eremu horretan desordena eta segurtasun-eza daudela dirudi.

Bizikletaren erabilera sustatzea Udal honek bere hiri-mugikortasun jasangarriko planetan hartutako konpromisoetako bat dela kontuan hartuta, eta eremu horretako joan-etorrien bolumen handia ere kontuan hartuta, honako interpelazio hau planteatzen da.

Hori dela eta, hauxe da Talde Popularraren

INTERPELAZIOA

1. Gobernu Taldeak zergatik ez du instalatzen bizikleta-aparkalekurik Zuatzu industrialdean?

2. Udalak aurreikusi al du Zuatzu industrialdeko puntu estrategikoetan bizikleta-aparkalekuak instalatzea, era horretan, bizikleta ohiko garraiobide gisa erabiltzea erraztu eta sustatzeko?

3. Erantzuna baiezkoa bada, zer epetan eta kokapen- eta segurtasun-irizpideren arabera?

4. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

Donostia, 2025eko ekainaren 6an

Jorge Mota Iglesias
Udaleko Talde Popularreko zinegotzia ”

Olatz Yarza andreak eta Jorge Mota jaunak hitz egin

siguiente Interpelación, al alcalde, D. Eneko Goia Laso, para su tratamiento en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos sobre la falta de estacionamientos para bicicletas en el Polígono Zuatzu.

JUSTIFICACIÓN

Existe una preocupación creciente entre vecinos, trabajadores y visitantes del Polígono Zuatzu, una zona caracterizada por su elevada actividad peatonal y laboral por la carencia significativa de infraestructuras adecuadas para el estacionamiento de bicicletas en esta área, a pesar del impulso institucional hacia una movilidad más sostenible.

El Polígono Zuatzu acoge a diario a cientos de personas que acuden a trabajar, a realizar gestiones, o a disfrutar de los servicios que allí se ofrecen.

Muchos de ellos optan por la bicicleta como medio de transporte ecológico, eficiente y saludable. Sin embargo, la falta de aparcamientos seguros y visibles desincentiva su uso, obliga al amarre improvisado en mobiliario urbano y genera, en consecuencia, una imagen de desorden e inseguridad.

Considerando que la promoción de la bicicleta forma parte de los compromisos adquiridos por este Ayuntamiento en sus planes de movilidad urbana sostenible, y teniendo en cuenta el volumen de tránsito que registra esta zona, se plantea la siguiente interpelación.

Es por esto por lo que el Grupo Popular, presenta la siguiente.

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuál es el motivo por el cual el Equipo de Gobierno no instala aparcabicis en el polígono de Zuatzu?

2. ¿Tiene previsto el Ayuntamiento instalar aparcabicis en puntos estratégicos del Polígono Zuatzu para facilitar y fomentar el uso de la bicicleta como medio de transporte habitual?

3. En caso afirmativo, ¿en qué plazos y con qué criterios de ubicación y seguridad?

4. En caso negativo ¿cuál es el motivo?

San Sebastián, a 06 de junio de 2025

Jorge Mota Iglesias,
Concejal del Grupo Municipal Popular”

Intervienen en este punto la Sra. Yarza Garagorri y el

dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Sr. Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**22.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Larramendi kalean dagoen zuloari buruzkoa.**

**22.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el socavón existente en la calle Larramendi.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

"Talde Popularreko zinegotzi Jorge Mota Iglesiasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia alkateari, Larramendi kalean dagoen zuloari buruz, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Zerbitzuak) aztertzeko.

"Jorge Mota Iglesias, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre el socavón existente en la calle Larramendi.

JUSTIFIKAZIOA

Asko dira gure hiriko asfaltoan dauden zuloak, eta Gobernu Taldeak lehenbailehen esku hartu behar du, asfaltoa gehiago hondatu ez dadin.

Horren adibide da Larramendi kalean dagoen zuloa, hain zuzen ere ibilgailuek eta oinezkoek erabiltzeko eremu mistoan kokatuta. Euria egiten duen bakoitzean, edo kalea ur-zurrustaz garbitzen denean, zulo hori urez betetzen da, eta inguruan dabiltzan oinezkoek nozitzen duten putzu bihurtzen da. Gainera, kale horretatik zirkulatzen duten ibilgailuek sufritu egiten dute bertatik igarotzen diren bakoitzean, ez baitago hori saihesteko aukerarik. Era berean, badakigu, zulo horren ondorioz, eroriko bat baino gehiago egon dela.

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Gobernu-taldeak zergatik ez du zulo hori estaltzen?
2. Udal Gobernuak ba al du hori egiteko asmorik?
3. Erantzuna baiezkoa bada, noiz?
4. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

Donostia, 2025eko ekainaren 6a

Jorge Mota Iglesias
Udal Talde Popularreko zinegotzia".

JUSTIFICACIÓN

Son muchos los socavones que hay en el asfaltado de nuestra ciudad y urge una pronta intervención por parte del Equipo de Gobierno para subsanar el deterioro de los mismos.

Es el caso del agujero que hay en la calle Larramendi, en la zona mixta de uso de vehículos y peatones. Cada vez que llueve, o cuando se limpia con chorro de agua la calle, este socavón se llena de agua, se convierte en charco que padecen los peatones que caminan por la zona. Además, los vehículos que circulan por esa calle sufren cada vez que pasan por él, al ser zona en la que no hay opción de evitarlo, y tenemos constancia de más de una caída por causa del mismo.

Por esos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no realiza la cobertura de dicho socavón?
2. ¿Tiene el Gobierno Municipal intención de realizarlo?
3. En el caso de respuesta afirmativa, ¿cuándo?
4. En caso de respuesta negativa, ¿cuáles son los motivos?

San Sebastián, a 6 de mayo de 2025

Jorge Mota Iglesias,
Concejal del Grupo Municipal Popular".

Carlos Garcia jaunak hitz egin du puntu honetan.

Interviene en este punto el Sr. García Hernández, en

Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**23.- Interpelazioa, EH BIldu Taldeak aurkeztua, Baskongada pasealekuko garajeen irteerari buruzkoa.**

Garbiñe Alkiza andreak interpelazio hau irakurritzat eman du:

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniegok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz Baskongada pasealekuko garajeen irteerari buruzko interpelazioa egiten dio Garraioko eta Mugikortasuneko zinegotzi ordezkari Olatz Yarza Garagorri andreari, hari buruzko azalpenak Gune Publikoen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Pagolako Baskongada pasealekuan bat egiten dute irteera berarekin, etxeetako garajeak eta bertan dagoen BM supermerkatuko aparkalekuko irteerak.

Bai bizilagunek eta erosketa egitera doazenek, leku beretik irten behar dira Baskongada pasealekura eta maiz egiten dute topo.

Hori bakarrik ez, eta bertan dauden aparkalekuetan, askotan autokarabanak egoten dira eta ikusgarritasuna kentzen diete irten behar diren autoei.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak nolabait banatzen edo margoz bereizten bizilagunen garajea eta BMko supermerkatuko aparkalekuaren irteera, bien arteko talkarik egon ez dadin? Asmorik al du nolabaiteko irtenbidea emateko arazo honi?
- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak bestelako neurririk hartzen, Baskongada pasealekuan dauden autokarabanek kentzen duten ikusgarritasuna konpontzeko? Zein da ezarriko duen neurria?

Donostian, 2025eko ekainaren 6a

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH Bildu udal taldeko zinegotzia".

Olatz Yarza eta Garbiñe Alkiza andreek hitz egin

los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**23.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la salida de los garajes del Paseo de Bascongada.**

La Sra. Alkiza López de Samaniego da por leída la siguiente interpelación:

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN a la señora Olatz Yarza Garagorri, concejala delegada de Movilidad y Transporte, con respecto a la salida de garajes del paseo de Bascongada, para que dé las explicaciones pertinentes en la Comisión de Espacio Público.

JUSTIFICACIÓN

En el paseo de Bascongada, en Pagola, confluyen los garajes de unas viviendas con la salida del aparcamiento del supermercado BM existente en dicha zona.

Tanto los vecinos y vecinas como las personas que acuden al supermercado a hacer la compra, tienen que salir al paseo de Baskongada por el mismo sitio y son numerosas las ocasiones en las que coinciden en la citada salida.

Es más, en los aparcamientos existentes en la zona, es frecuente encontrarse con autocaravanas estacionadas que quitan visibilidad a los coches que desean salir.

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué el Gobierno municipal no separa de alguna manera la salida de los garajes de la comunidad de la salida del aparcamiento del supermercado BM para evitar colisiones? ¿Tiene intención de dar alguna solución a este problema?
- ¿Cuál es la razón por la que el Gobierno municipal no adopta ninguna otra medida para garantizar la visibilidad que quitan las autocaravanas estacionadas en el paseo de la Bascongada? ¿Qué medida que va a adoptar?

San Sebastián, a 6 de junio de 2025

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego,
concejala del grupo municipal EH Bildu".

Intervienen en este punto las Sras. Yarza Garagorri y

dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Alkiza López de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**24.- Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, Bera Bera auzoan kirol egokitua sustatzeari buruzkoa.**

**24.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la promoción del deporte adaptado en el barrio de Bera Bera.**

Itziar Iturri andreak interpelazio hau azaldu du:

La Sra. Iturri Arrazola expone la siguiente interpelación:

"Itziar Iturri Arrazolak, EH Bildu udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Garraioko eta Mugikortasuneko zinegotzi ordezkari Olatz Yarza Garagorri andreari Bera Bera auzoan kirol egokitua sustatzeari buruzkoa, hari buruzko azalpenak ahoz eman ditzan Gune Publikoen Batzordean.

JUSTIFIKAZIOA

Bera Bera auzoaren erdi aldean Atletico San Sebastian klubaren instalazioak daude. Bertan hainbat kirol egiten dira (hockeya, padel, saskibaloia, mahai tenisa....) eta indartu nahi duten lan ildoetako bat egokitutako kirola da. Zentzu honetan Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioarekin elkar lanean ari dira.

Lan ildo honen adibide dira eta Udalean aski ezagunak ditugu egokitutako Mahai Teniseko txapeldunak diren Ander Cepas eta Olaia Martinez besteak beste.

Klubeko instalazioak irisgarriak diren arren (hainbat sarrera daude egokituta), inguratzen dituen espaloia ez da irisgarria eta ez dago egokitutako aparkalekurik klubeko sarreretatik gertu.

Horregatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak irisgarritasuna bermatzen Atletico San Sebastianek Bera Beran duen egoitzaren inguruan, egokitutako baliabideei dagokienean?

- Aztertu al du Udal Gobernuak Bera Beran egokitutako aparkaleku plaza bat jartzeko aukera?Ez bada hala, aztertuko al du Udal Gobernuak egokitutako aparkaleku plaza bat kokatzeko, zebra bide bat jartzeko eta espaloia beheratzeko aukera, egokitutako kirolariak segurtasunez irits daitezen klubera?

Donostian, 2025eko ekainaren 6an

"Itziar Iturri Arrazola, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN, relativa a la promoción del deporte adaptado en el barrio de Bera Bera, a la concejala delegada de Transporte y Movilidad Sostenible, Olatz Yarza Garagorri, para su respuesta oral en la Comisión de Espacio Público.

JUSTIFICACIÓN

Las instalaciones del Club Atlético San Sebastián se encuentran en el centro del barrio de Bera Bera. Allí se practican multitud de deportes (hockey, pádel, baloncesto, tenis de mesa...) y una de las líneas de trabajo que se desea impulsar es el deporte adaptado. Para ello, están trabajando en colaboración con la Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado.

Ejemplos de esta línea de trabajo son, entre otros, los campeones de tenis de mesa adaptado Ander Cepas y Olaia Martínez, a quienes conocemos muy bien en este Ayuntamiento.

Aunque las instalaciones del club son accesibles (existen varias entradas adaptadas), la acera que las rodea no lo es y tampoco hay ningún aparcamiento adaptado en las inmediaciones de las entradas al club.

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Cuál es la razón por la que el Gobierno municipal no garantiza la accesibilidad a los recursos adaptados en el entorno de la sede de Atlético San Sebastián en Bera Bera?

- ¿Ha estudiado el Gobierno municipal la posibilidad de habilitar una plaza de aparcamiento adaptado en Bera Bera? Si la respuesta es negativa, ¿estudiará el Gobierno municipal la posibilidad de establecer una plaza de aparcamiento adaptado, habilitar un paso de cebra y rebajar la acera para que las personas que practican el deporte adaptado puedan acceder al club con seguridad?

En San Sebastián, a 6 de junio de 2025

Itziar Iturri Arrazola
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Juan Marrero jaunak eta Olatz Yarza andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(12:50ean Nekane Arzallus andrea bilkuratik atera da)*

**25.- Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, Morlans-Anoeta eta Anoeta-Loiola eremuko topoa estaltzeko bizilagunen parte hartzeari buruzkoa.**

Garbiñe Alkiza andreak interpelazio hau azaldu du:

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniegok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, Morlans-Anoeta eta Anoeta-Loiola eremuko topoa estaltzeko bizilagunen parte hartzeari buruzko interpelazioa egiten dio Eneko Goia Lasko Alkate Jaunari, hari buruzko azalpenak Gune Publikoen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

2022ko maiatzean Donostiako Udalbatzak onartu zuen Eusko Jaurlaritzari eskatzea ikertu eta azter zezala, Donostiako Udalarekin batera, zer alternatiba jasangarri egon zitezkeen, Donostian, ETS lineako trenen trafikoak bizilagunei ahalik eta kalte gutxien eragiteko.

Eskaera hori erantzunez, azaroaren 18an ETSk lizitaziora atera zuen Morlans-Anoeta tartean trenbidearen hiri integraziorako alternatiben azterlana idazteko zerbitzua 130.000 euroko aurrekontuarekin.

Baina azterlan horretan soilik Morlans-Anoeta tartea aztertuko zenez, eta Anoeta-Loiola tartea azterlan horretatik kanpo geratuko zen. 2022ko abenduan mozio bat eraman zuen EH Bilduk Donostiako Udalbatzara Morlans-Anoeta tartean trenbidearen hiri-integraziorako alternatiben azterlana idazteko zerbitzuan Anoeta – Loiolako zatia estaltzeko azterlana gehitu zezala eskatuz. Eta gainera, onartua izan zen.

Typsak azterlana egin zuen eta zati hori estaltzeko hainbat alternatiba aurkeztu zituen haren txostenean.

Txosten hori izanik, maiatzaren 6an Amara Berriko

Itziar Iturri Arrazola
concejala del grupo municipal EH Bildu"

Intervienen en este punto el Sr. Marrero Vizcaíno y la Sra. Yarza Garagorri, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 12:50 h la Sra. Arzallus Iturriza se retira de la sesión)*

**25.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la participación de los vecinos en relación con el cubrimiento del topo en la zona Morlans-Anoeta y Anoeta-Loiola.**

La Sra. Alkiza López de Samaniego expone la siguiente interpelación:

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, en base al artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente interpelación, relativa a la participación de vecinos y vecinas en relación con el cubrimiento del topo en la zona de Morlans-Anoeta y Anoeta-Loiola, al Sr. alcalde, Eneko Goia Laso, para su respuesta en la Comisión de Espacio Público.

JUSTIFICACIÓN

En mayo de 2022, el Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián aprobó una moción que instaba al Gobierno Vasco a estudiar y a analizar conjuntamente con el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián diferentes alternativas sostenibles para minimizar las afecciones a los vecinos y vecinas del tráfico ferroviario en la línea ETS-RFV en San Sebastián.

En respuesta a dicha solicitud, el 18 de noviembre, ETS sacó a licitación el servicio de redacción del estudio de alternativas de integración urbana del ferrocarril en el tramo Morlans-Anoeta, con un presupuesto de 130.000 euros.

Pero en este estudio solo se analizaría el tramo Morlans-Anoeta, quedando fuera de este el tramo Anoeta-Loiola. En diciembre de 2022 EH Bildu llevó al Pleno una moción solicitando la incorporación del estudio de cubrición del tramo Anoeta – Loiola al servicio de redacción del estudio de alternativas para la integración urbana del ferrocarril en el tramo Morlans-Anoeta, moción que además fue aprobada.

Typsa realizó el estudio y presentó en su informe diversas alternativas para la cubrición de este tramo.

Con este informe, el pasado 6 de mayo 3 miembros de

Bizilagun elkarteko 3 kide Legebiltzarrean egon ziren trenbideak eragindako arazoei eta egon daitezkeen irtenbideei buruz azalpenak emateko.

Arazo horri erantzuna emanez, ETSk proposatu du pantaila batzuk jartzea. Zehazki, Tecnalia garatzen ari den pantaila-prototipo bat da, oraindik ere inon ezarri ez direnak eta dirudienez gurpilen parean jarriko direnak.

Bizilagunek adierazi zutenez, pantailen neurri horrek ez dute hiri-integrazioa bermatzen, ez eta zarata guztiz kenduko denik ziurtatzen.

2022an ere, Alkate jaunak berak, aukera on gisa eta bideragarri ikusten zuen Morlans-Anoeta arteko lurperatzea, are gehiago, trenen trafikoa mozten ez bazen ere, estaltzea ere bideragarri zela.

Baina orain, Susana Garcia Chuecak, Mugikortasun Jasangarriaren sailburuak, bizilagunei helarazitako gutun batean adierazten duenez, ez Eusko Jaurlaritzak, ez Udal Gobernuak ez dute egingarri ikusten ez estaltzea eta ez lurperatzea.

Horiek horrela, apirilaren 27an, Alkate jaunari mezu bat bidali zioten Amara Berriko bizilagunek haien kezka eta proposamenak azaltzeko. Mezuaren erantzunik jaso ez zutenez, beste mezu bat bidali zioten maiatzaren 25ean, eta oraindik ez dute Alkatearen erantzunik jaso.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta ez dio Udal Gobernuak Amarako Berriko Bizilagunen mezuari erantzun eta haiekin bilera bat egin? Noiz du asmoa hori egiteko?
- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak bizilagunen iritzia kontuan hartu? Asmorik al du Udal Gobernuak Amara Berriko bizilagunei trenbideak estaltzeko soluzioari buruz galdetzeko?
- Zer iritzi Udal Gobernuak ETSk eta Tecnaliak proposatutako irtenbideari buruz? Benetan uste al du Udal Gobernuak irtenbide honek bizilagunen eskaerak erantzungo dituela eta egun duten arazoa konponduko duela?
- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak Eusko Jaurlaritzarekin eta ETSrekin batera Morlans-Loiola zatia estaltzeko irtenbidea bilatu hiri-integrazioa hobetzeko eta zarataren arazoa konpontzeko? Asmorik al du Udal Gobernuak Eusko Jaurlaritzarekin eta ETSrekin eremu honetako hiri-integrazioa hobetzeko eta

la Asociación de Vecinos de Amara Berri acudieron al Parlamento Vasco para explicar los problemas y posibles soluciones en torno a la vía ferroviaria.

A modo de respuesta a este problema, ETS propone la colocación de una serie de pantallas. Concretamente, se trata de un prototipo de pantalla que está desarrollando Tecnalia, que aún no se han implantado en ningún lugar y que al parecer se situarán a la altura de las ruedas de los trenes.

Según manifestaron los vecinos, este tamaño de pantalla no garantiza la integración urbana ni la eliminación total del ruido.

En 2022, el propio Sr. alcalde consideraba que el soterramiento entre Morlans-Anoeta era una buena opción y viable; y la opción de cubrición de las vías, sin interrumpir el tráfico ferroviario, era también considerada una opción viable.

Pero ahora, como señala la consejera de Movilidad Sostenible, Susana García Chueca, en una carta dirigida a los vecinos, ni el Gobierno Vasco ni el Gobierno Municipal ven factible ni el cubrimiento ni el soterramiento de las vías.

Ante esta situación, el pasado 27 de abril, los vecinos de Amara Berri enviaron al Sr. alcalde un escrito exponiendo sus inquietudes y propuestas. Al no recibir respuesta, el 25 de mayo le remitieron otro escrito y aún no han recibido respuesta por parte del alcalde.

Es por ello por lo que la concejala que suscribe presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué motivo el Gobierno Municipal no ha dado una respuesta al escrito remitido por los Vecinos de Amara Berri y no se ha reunido con ellos? ¿Cuándo pretende hacerlo?
- ¿Por qué motivo el Gobierno Municipal no ha tenido en cuenta la opinión de las vecinas y los vecinos de la zona? ¿Tiene intención el Gobierno Municipal de preguntar a las vecinas y los vecinos de Amara Berri sobre la solución para la cubrición de las vías ferroviarias?
- ¿Qué opinión tiene el Gobierno Municipal sobre la solución propuesta por ETS y Tecnalia? ¿Cree sinceramente el Gobierno Municipal que esta solución responderá a las demandas delas vecinas y los vecinos y solucionará su problema actual?
- ¿Por qué motivo el Gobierno Municipal no ha buscado una solución de forma conjunta con el Gobierno Vasco y ETS para la cubrición del tramo Morlans-Loiola, con el objetivo de mejorar la integración urbana y resolver el problema del ruido provocado por el ferrocarril? ¿Tiene intención el Gobierno Municipal de impulsar alguna

zarataren arazoa konpontzeko lankidetzarik edo akordiorik bultzatzeko?

colaboración o acuerdo con el Gobierno Vasco y ETS para mejorar la integración urbana en este ámbito y solucionar el problema del ruido?

Donostian, 2025eko ekainaren 6an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH Bildu udal Taldeko zinegotzia”

En San Sebastián, a 6 de junio de 2025

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
concejala del grupo municipal EH Bildu”

Olatz Yarza eta Garbiñe Alkiza andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto las Sras. Yarza Garagorri y Alkiza López de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**26.- Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, hondartza-denboraldiaren hasierako sorospen-zerbitzuaren baldintzei buruzkoa.**

**26.- Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre las condiciones del servicio de socorrismo en el inicio de la temporada de playas.**

Jabier Vitoria jaunak interpelazio hau azaldu du:

“Jabier Vitoria Romak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, INTERPELAZIO hau egiten dio Carlos García Hernandezi, Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi ordezkariari, hondartza-denboraldiaren hasierako sorospen-zerbitzuaren baldintzei buruz, Gune Publikoen Batzordean ahoz erantzun dezan.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako hondartza-denboraldiaren hasiera ekainaren 1ean izan zen, eta Zurriolako hondartzan, sorospen-lana egiteko baldintzen salaketa publiko batekin hasi zuten. Zeharkako kudeaketako zerbitzu publikoa da, Ondarretako, Kontxako eta Zurriolako hondartzetan uretako sorospena zaintzeko eta prebenitzeko, hondartzetan osasun-larrialdiak salbatzeko eta laguntzeko, eta badiako uretan eta Zurriolako itsas eremuan bainua eta ur-kirolak zaintzeko.

Salaketa publiko horretan adierazi zenez, Zurriolako hondartzan ez zuten “quad”-a bezalako baliabiderik materiala edo zauritutako pertsonak garraiatzeko, ezta uretako motorrik ere uretako erreskate-egoeretan esku-hartze eraginkorra bermatzeko, eta megafonia-taldeak ez zuen funtzionatzen.

Era berean, lanerako eta norbera babesteko funtsezko elementuak falta ziren instalazioei dagokienez, eta hitzez hitz diot, "2024ko urriaren 1etik ez dira garbitu edo desinfektatu".

Horregatik guztiagatik salatzen zen baldintza horietan ez zegoela bermatuta ez erabiltzaileen ez sorosleen segurtasuna, eta premiazko neurriak eskatzen ziren.

El Sr. Vitoria Roma expone la siguiente interpelación:

“Jabier Vitoria Roma, concejal del grupo municipal EH BILDU, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN, relativa a las condiciones del servicio de socorrismo al inicio de la temporada de playas, a Carlos García Hernandez, concejal delegado de Mantenimiento y Servicios Urbanos, para su respuesta oral en la Comisión de Espacio Público.

JUSTIFICACIÓN

El inicio de la temporada de playas de San Sebastián se produjo el pasado 1 de junio y en la playa de Zurriola esta temporada se inició con una denuncia pública sobre las condiciones de los recursos con los que cuenta el servicio de socorrismo. Se trata de un servicio público de gestión indirecta, cuyo objeto es la vigilancia y la prevención del socorrismo acuático en las playas de Ondarreta, La Concha y Zurriola, el salvamento y la asistencia en emergencias sanitarias en las playas y la vigilancia del baño y los deportes acuáticos en las aguas de la bahía y zona marítima de la Zurriola.

En dicha denuncia pública se indicaba que en la playa de la Zurriola no disponían de medios como el "quad" para el transporte de material o personas heridas, ni motos acuáticas para garantizar una intervención eficaz en situaciones de rescate acuático, y que el equipo de megafonía no funcionaba.

Asimismo, faltaban elementos esenciales de trabajo y protección personal; y en cuanto a las instalaciones, y cito textualmente "desde el 1 de octubre de 2024 no se han limpiado ni desinfectado".

Por todo ello, se denunciaba que en estas condiciones no estaba garantizada la seguridad ni de los usuarios ni de los propios socorristas y por ello se requerían

medidas urgentes.

Hiri Mantenuko arloak komunikabideetan erantzun du zerbitzua "baldintza egokietan" egiten ari zirela, motoa eta quad-a "egun batzuen buruan" iritsiko zirela eta enpresa esleipenduna zerbitzu hori egiteko aldatu izanak "prestaketan aldaketa txikiren bat" eragin ahal izan duela.

Desde la Dirección de Mantenimiento Urbano se da una respuesta en medios de comunicación, en la que se afirma que el servicio se está prestando en "condiciones adecuadas", que la moto y el quad llegarán "en unos días" y que el cambio de empresa adjudicataria para la prestación de este servicio ha podido suponer "alguna pequeña modificación en la preparación".

Denboraldiko zerbitzu hori emateko kontratua ekainaren 1ean hasi da, eta egun horretatik aurrera izango du eragina; beraz, egun horretan ere behar diren baliabideak izan beharko ditu. Kontratazio-agirian zehazten da zein baliabide ematen dituen udalak eta zein enpresa esleipendunak.

El contrato para la prestación de este servicio de temporada comenzó el 1 de junio, fecha a partir de la cual surtirá efectos, por lo que se debería haber contado con los recursos necesarios para dicha fecha. En el pliego de contratación se especifican los medios que se aportan, tanto desde el Ayuntamiento como desde la empresa adjudicataria.

Hori dela eta, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta hau jakinik, lan-baldintzak egokiak direla deritzozue?
- Zurriolako hondartzan gutxienez salatu den prestakuntza kaskar horren arrazoiak: ekipamendua, instalazioak, megafonia...? Konpondu al dira?
- Baliabide gutxiegi horrek eragina izan al du gainerako hondartzetan ere? Zergatik?
- Zergatik ez dute sorosleek lanerako beharrezko material eta elementurik, kontratuaren eta kontratuaren baldintza-agiriak dioten bezala? Hala bada, udalaren edo enpresa esleipendunaren erantzukizuna da? Enpresa esleipendunak ez-betetzerik egin badu, hori betetzeko jardueraren bat hasi da edo hasiko al da?

Por todo ello, el concejal abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- Siendo conocedores de esta situación, ¿cómo pueden considerar que las condiciones de trabajo son adecuadas?
- Se han solucionado los diversos problemas que motivaron la denuncia por prestación inadecuada del servicio, como son el equipamiento, las instalaciones y la megafonía?
- ¿Ha tenido algún impacto esta falta de recursos en el resto de playas? ¿Por qué motivo?
- ¿Por qué motivo no disponen los socorristas de materiales y elementos necesarios para la prestación el servicio, tal y como establece pliego de condiciones del contrato? En caso afirmativo, ¿es responsabilidad del Ayuntamiento o de la empresa adjudicataria? En caso de incumplimiento por parte de la empresa adjudicataria, ¿se ha iniciado o se va a iniciar alguna actuación para su cumplimiento?

Donostian, 2025eko ekainaren 6an

Jabier Vitoria Roma
concejal del grupo municipal EH BILDU”

San Sebastián, a 6 de junio de 2025

Jabier Vitoria Roma
concejal del grupo municipal EH BILDU”

Carlos Garcia eta Jabier Vitoria jaunek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto los Srs. García Hernández y Vitoria Roma, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**27. Interpelazioa, EH Bildu taldeak aurkeztua, udako trafikoa arintzeko neurriei buruzkoa.**

**27. Interpelación, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre las medidas para aliviar el tráfico en verano.**

Garbiñe Alkiza andreak interpelazio hau irakurritzat

La Sra. Alkiza López de Samaniego da por leída la

eman du:

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniegok, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 134. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, udako trafikoa arintzeko neurriei buruzko interpelazioa egiten dio Garraioko eta Mugikortasuneko zinegotzi ordezkari Olatz Yarza Garagorri andreari, hari buruzko azalpenak Gune Publikoen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Urtero ohikoak dira mugikortasun arazoak eta pilaketak hiriaren erdigunean. Azken udaratan, Udal Gobernuak, hainbat neurri ezarri ditu auto-pilaketak saihesteko, baina hala ere urtero egoten dira trafiko-arazoak.

Neurriak hainbatekoak izaten dira, Udal Gobernuak Donostia bisitatzera datozenei dei egiten die hiriko disuasio-aparkalekuak erabiltzea. Orain arteko Illunbeko aparkalekuarekin batera, iaz Igaran jadanik bazegoen aparkaleku bat erabiltzeko gomendioa ematen zen, eta gomendatzen dituen gainerako disuasio-aparkalekuak honakoak dira: Miramon, Zuatzu, Garbera eta Ficoba.

Hala ere, nahiz eta aparkaleku horiek gomendatu, lur azpiko aparkaleku gehienak hiriaren erdigunean izanik, hiriaren erdigunean trafiko arazoak izan ziren iazko uda sasoian.

Bestelako neurri osagarriak ezarri ziren, hala nola, zentroko lur azpiko parkingak betetzen direnean, hainbat puntuetan zentrora trafikoaren sarrera etetea. Badakigu irtenbidea ez dela erraza, baina jakin badakigu ere honako mozketek arazoak sortu izan dituztela aurreko udatan.

Urtero ere bizikletentzako udako aparkaleku osagarriak jartzen dira hiriaren hainbat lekuetan, bizikleta erabilera handia dela jakinik.

Iazko neurri berri gisa, Donostiako Udalak, akordio berri bat egin zuen Telpark enpresarekin, Okendo, Boulevard eta Cervanteseko aparkalekuetan 7 neurri berri berri ezartzeko, mugikortasun jasangarriago baten aitzakian.

Argi dago neurri berri horiek bakarrik ez dituztela auto-pilaketak saihestuko erdigunean eta egun zentroan dagoen mugikortasunak arazoak dituela eta bestelako neurri osagarriak behar dituela. Arazo hori hainbat neurriekin konpondu daiteke: erdiko lur

siguiente interpelación:

"Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego, concejala del grupo municipal EH Bildu, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN a la señora Olatz Yarza Garagorri, concejala delegada de Movilidad y Transporte, relativa a las medidas de calmado de tráfico en verano, para que dé las explicaciones oportunas en la Comisión de Espacio Público.

JUSTIFICACIÓN

Cada año se producen problemas de movilidad y atascos en el centro de la ciudad. En los últimos veranos, el Gobierno municipal ha adoptado una serie de medidas para evitar la congestión vehicular, pero, aun así, todos los años suele haber problemas de tráfico.

Las medidas adoptadas suelen ser de diversa índole; entre ellas, se encuentra el llamamiento que realiza el Gobierno municipal a las personas que visitan San Sebastián para que utilicen los aparcamientos disuasorios de la ciudad. Junto con el parking de Illunbe, que se ha venido utilizando hasta la fecha, el pasado año se recomendaba hacer uso de un parking habilitado en Igara. El resto de aparcamientos disuasorios recomendados fueron el de Miramón, Zuatzu, Garbera y Ficoba.

Sin embargo, a pesar de la recomendación de hacer uso de estos aparcamientos, teniendo en cuenta que la mayoría de los parkings subterráneos se encuentran en el centro de la ciudad, en la época estival del pasado año hubo problemas de tráfico en el centro.

Además, se establecieron otras medidas complementarias, como los cortes de tráfico en varios puntos de la ciudad, de forma que impedían acceder al centro cuando los parkings subterráneos del centro se encontraban completos. Sabemos que la solución no es fácil, pero somos conscientes de que estos cortes han generado problemas en veranos anteriores.

Por otro lado, teniendo en cuenta el elevado uso de la bicicleta, cada año se instalan, en diferentes puntos de la ciudad, aparcabicis auxiliares de verano.

El año pasado, como medida novedosa, el Ayuntamiento de San Sebastián adoptó un nuevo acuerdo con la empresa Telpark para implantar siete nuevas medidas en los aparcamientos de Okendo, Boulevard y Cervantes, con el fin de promover una movilidad más sostenible.

Es evidente que solo con estas nuevas medidas no se evitará la congestión en el centro y que actualmente la movilidad en esta zona presenta problemas y precisa de otras medidas complementarias. Este problema puede resolverse a través de una serie de medidas

azpiko aparkalekuetan benetako eraldaketa bat egitea, garraio publikoa indartzen jarraitzea, bizikletentzako baliabide (bidegorriak eta aparkaleku seguruak) gehiago jartzea eta gure hirian disuasio aparkaleku gehiago sortzea.

Disuasio-aparkaleku berri bat aztertzeko proposamena ekarri zuen EH Bilduk Udalbatzara jada orain 2 urte. 2023Ko uztaileko udalbatzan, aho batez honakoa onartu zen: “Donostiako Udalbatzak hertsiki eskatzen dio Udal Gobernuari, Aritzetako aparkalekua Donostiarekin lotzeko beharko lukeen inbertsioa eta baliabideen azterketa egin dezan Dbus bidez.”

Horren ondoren, maiz entzun dugu Garraioko eta Mugikortasuneko zinegotzi ordezkaria Aritzetako disuasio-aparkalekuari buruz hitz egiten; aztertzen ari zirela, 2024ko udararako jarrita egon zitekeela, baina errealitatea da, 2025eko udan sartzear gauden honetan, oraindik ere ez dakigula zer gertatuko den Aritzeko disuasio aparkalekuarekin.

Gainera ez dakigu zeintzuk izango diren Udal Gobernuak uda honetan ezarriko dituen neurriak ere.

Horregatik guztiarengatik, behean sinatzen duen zinegotziak honako INTERPELAZIO hau egiten du:

- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak Aritzeta disuasio-aparkaleku gisa ezarri uda honetan gure hirian mugikortasun arazorik ez gertatzeko? Zer egoeratan dago gaur egun hasitako azterketa? Zer urrats eman dira? Asmorik al du Aritzeta disuasio-aparkaleku gisa jartzeko?

- Zer dela eta ez du Udal Gobernuak bestelako neurri osagarririk egin erdiguneko lur azpiko aparkalekuetan auto pribatua gure hiriaren erdigunera sartu ez dadin eta trafiko arazorik egon ez dadin? Uste al du iaz Telpark enpresarekin egindako akordioa nahikoa dela mugikortasun jasangarri bat sustatzeko?

- Zer bestelako neurri hartuko ditu Udal Gobernuak garraio publikoa eta bizikletaren erabilera sustatzeko?

Donostian, 2025eko ekainaren 6an

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
EH Bildu udal taldeko zinegotzia”

Olatz Yarza eta Garbiñe Alkiza andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

que pasan por la transformación efectiva de los aparcamientos subterráneos del centro, por seguir reforzando el transporte público, por aumentar recursos para las bicicletas (bidegorris y aparcamientos seguros) y por la creación de más aparcamientos disuasorios en nuestra ciudad.

Hace ya dos años, EH Bildu presentó en pleno una propuesta que instaba a estudiar la creación de un nuevo aparcamiento disuasorio. En el pleno municipal de julio de 2023 se aprobó, por unanimidad, el siguiente acuerdo: "El Pleno del Ayuntamiento de San Sebastián insta al Gobierno Municipal a realizar, a través de Dbus, un análisis de la inversión y de los recursos que se necesitarían para conectar el aparcamiento de Aritzeta con San Sebastián".

Posteriormente, hemos oído hablar en numerosas ocasiones a la concejala delegada de Transportes y Movilidad sobre el parking disuasorio de Aritzeta; concretamente, señalaba que lo estaban estudiando y que podría estar habilitado para el verano de 2024, pero la realidad es que, a punto de entrar en el verano de 2025, todavía no sabemos qué va a pasar con el parking disuasorio de Aritzeta.

Además, no sabemos cuáles serán las medidas que el Gobierno municipal va a implementar este verano.

Es por ello por lo que la concejala abajo firmante presenta la siguiente INTERPELACIÓN:

- ¿Por qué el Gobierno municipal no ha habilitado Aritzeta como aparcamiento disuasorio para que este verano no se produzcan problemas de movilidad en nuestra ciudad? ¿En qué situación se encuentra actualmente el estudio iniciado? ¿Qué pasos se han dado? ¿Se tiene la intención de habilitar Aritzeta como aparcamiento disuasorio?

- ¿Por qué el Gobierno municipal no ha adoptado ninguna otra medida complementaria para evitar que el coche privado entre al centro de nuestra ciudad para acceder a los aparcamientos subterráneos existentes y se produzcan, de esta forma, problemas de tráfico? ¿Cree que el acuerdo del año pasado con la empresa Telpark es suficiente para promover una movilidad sostenible?

- ¿Qué otras medidas va a adoptar el Gobierno municipal para fomentar el transporte público y el uso de la bicicleta?

San Sebastián, a 6 de junio de 2025

Garbiñe Alkiza Lopez de Samaniego
concejala del grupo municipal EH BILDU”

Intervienen en este punto las Sras. Yarza Garagorri y Alkiza López de Samaniego, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al

Diario de Sesiones.

*(13:26an Nekane Arzallus andrea bilkurara itzuli da)*

*(A las 13:26 h la Sra. Arzallus Iturriza se reincorpora a la sesión)*

**28.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Aitzol Parkeko bankuen egoera txarrari buruzkoa, Usandizaga BHIren ondoan.**

**28.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el mal estado de los bancos del Parque Aitzol, al lado del IES Usandizaga.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

"Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Aitzol parkeko (Usandizaga BHI ondoan) bankuen egoera txarrari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) azter dadin.

"Borja Corominas Fisas, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre el mal estado de los bancos del Parque Aitzol, al lado del IES Usandizaga.

JUSTIFIKAZIOA

Aitzol parkean, Usandizaga BHIren ondoan, kokatuta dauden bankuak egoera txarrean eta utzikeria-egoeran daude. Inguruko bizilagunak aspaldi dira kexu eta hala ere ez da horren inguruan ezer egin.

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

- Zergatik ez dira bankuak mantentzeko eta zaintzeko lanak egin?
- Udal-gobernuak ba al du hori egiteko asmorik?
- Hala bada, noiz?
- Hala ez bada, zergatik?
- Salaketarik erregistratu al da arrazoi horrengatik? Zenbat?

Donostian, 2025eko ekainaren 6an

Borja Corominas Fisas
Udal Talde Popularreko zinegotzia"

JUSTIFICACIÓN

Los bancos que hay en el Parque Aitzol, al lado del IES Usandizaga, están en mal estado y presentan un estado de dejadez. Los vecinos de la zona llevan quejándose meses sin que se haga nada al respecto.

Por estos motivos, presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

- ¿Cuáles son las razones por las que no se ha realizado un mantenimiento y cuidado de los bancos?
- ¿Tiene el Equipo de Gobierno intención de hacerlo?
- En caso afirmativo, ¿cuándo?
- En caso negativo, ¿cuáles son las razones?
- ¿Hay denuncias registradas por estas causas? ¿Cuántas?

San Sebastián, a 6 de junio de 2025

Borja Corominas Fisas
Concejal del Grupo Municipal Popular"

Carlos Garcia eta Jorge Mota jaunek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto los Sres. García Hernández y Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**29.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, San Bartolome muinoko kokalekuari buruzkoa.**

**29.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre asentamiento en la colina de San Bartolomé.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

"Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, San Bartolome muinoko kokalekuari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

San Bartolome muinoan aspalditik dago kokaleku bat. Hainbat bizilagun askotan kexatu dira, baina ez da horren inguruko esku-hartzerik egin. Gainera, ez dira seguru sentitzen.

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez da kokaleku hori hustu?
2. Udal-gobernuak ba al du hori egiteko asmorik?
3. Hala bada, noiz?
4. Hala ez bada, zergatik?
5. Salaketarik erregistratu al da arrazoi horrengatik? Zenbat?

Donostia, 2025eko ekainaren 6an

Borja Corominas Fisas
Udal Talde Popularreko zinegotzia"

Martin Ibabe eta Jorge Mota jaunek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

"Borja Corominas Fisas, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre asentamiento en la colina de San Bartolomé.

JUSTIFICACIÓN

En la colina de San Bartolomé hay un asentamiento desde hace tiempo. Varios vecinos se han quejado a los municipales en numerosas ocasiones, pero no ha habido intervención alguna. Además de ello, se sienten inseguros.

Por estos motivos, presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son las razones por las que no han desalojado a los ocupantes?
2. ¿Tiene el Equipo de Gobierno intención de hacerlo?
3. En caso afirmativo, ¿cuándo?
4. En caso negativo, ¿cuáles son las razones?
5. ¿Hay denuncias registradas por estas causas? ¿Cuántas?

San Sebastián, a 6 de junio de 2025

Borja Corominas Fisas
Concejal del Grupo Municipal Popular"

Intervienen en este punto los Sres. Ibabe Eceiza y Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**30.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, hiriko tamariz batzuek duten arriskuari buruzkoa.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau azaldu du:

"Borja Corominas Fisas Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, hiriko tamariz batzuek hirian sortzen duten arriskuari buruzkoa, Gune

**30.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre el riesgo que suponen algunos tamarices de la ciudad.**

El Sr. Mota Iglesias expone la siguiente interpelación:

"Borja Corominas Fisas, Concejal del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios

Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Duela gutxi, oinezko batek kolpe bat hartu zuen tamariz baten kontra, eta zauri handiak eragin zizkion buruan. Zuhaitz horietako askok halako inklinazioa dute, non arriskutsua haien ondotik pasatzea. Gainera, zuhaitz horietako askoren kasuan, adarrak buruaren parean geratzen dira, eta hori arriskutsua da.

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez dira inausten adar arriskutsu eta irtenenak, edo, bestela, ez dira zuhaitz horiek estaltzen, istripurik egon ez dadin?
2. Zergatik ez dira ebakitzen oinezkoentzat arriskutsuak diren enborrak? Ezin dira zuzendu?
3. Udal-gobernuak ba al du hori egiteko asmorik?
4. Hala bada, noiz?
5. Hala ez bada, zergatik?
6. Salaketarik erregistratu al da arrazoi horrengatik? Zenbat?

Donostia, 2025eko ekainaren 6an

Borja Corominas Fisas
Udal Talde Popularreko zinegotzia”

Urbanos, sobre el riesgo que suponen algunos tamarices de la ciudad.

JUSTIFICACIÓN

Recientemente un viandante sufrió un golpe contra un tamariz causándole heridas importantes en la cabeza. Muchos de estos árboles tienen tal inclinación que pasar cerca de ellos supone un peligro. Además, en gran parte de ellos, las ramas quedan a la altura de la cabeza y esto supone un riesgo.

Por estos motivos, presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son las razones por las que no se podan las ramas más peligrosas y salientes, o en su defecto, se recubren para evitar más accidentes?
2. ¿Por qué no se cortan los troncos que suponen un riesgo para los viandantes? ¿No es posible enderezarlos?
3. ¿Tiene el Equipo de Gobierno intención de hacerlo?
4. En caso afirmativo, ¿cuándo?
5. En caso negativo, ¿cuáles son las razones?
6. ¿Hay denuncias registradas por estas causas? ¿Cuántas?

San Sebastián, a 6 de junio de 2025

Borja Corominas Fisas
Concejal del Grupo Municipal Popular”

Carlos Garcia jaunak hitz egin du puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Interviene en este punto el Sr. García Hernández, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**<u>31.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, egoiliarren bineta kendu izanaren gainean.</u>**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

“Talde Popularreko zinegotzi Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, egoiliarren bineta kendu izanari buruz, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

**<u>31.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la eliminación de la viñeta de residentes.</u>**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

“Borja Corominas Fisas Concejal del Grupo Popular, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, sobre la eliminación de la viñeta de residentes.

JUSTIFICACIÓN

Egoiliarren pegatina/bineta ibilgailuetatik kentzea erabaki zenetik, aparkatzeko arazoak ugaritu egin dira. Orain inork ez daki egoiliarrentzat erreserbatutako espazioetan aparkatuta dagoen ibilgailua egoiliar batena den edo arauak betetzen ez dituen herritar batena den.

Desde que se decidió eliminar la pegatina/viñeta de Residentes en los vehículos, los problemas de aparcamiento para éstos se han multiplicado. Ahora nadie sabe si el vehículo que está aparcado en los espacios reservados a residentes pertenece a un residente o es algún ciudadano que no hace caso a las normas.

Arazo horiek ugaritu egiten dira Donostiako zenbait auzotan, hala nola Amaran, erabiltzaile askok aparkatzen baitituzte beren ibilgailuak egoiliarren eremuetan, futbol-partidak, kirol-partidak edo edozein motatako ekitaldiak baino egun batzuk lehenago, nahiz eta bertan aparkatzeko baimenik ez izan. Horren aurrean, egoiliarren ezin dute ezer egin.

Estos problemas se multiplican en varios barrios de San Sebastián, como en Amara, donde son muchos los usuarios que días antes de los partidos de fútbol, encuentros deportivos o eventos de cualquier tipo, aparcan sus vehículos en las zonas de residentes, sin poder hacerlo y sin que los residentes puedan hacer nada.

Antzeko zerbait gertatzen da hiriaren erdigunean; bertan, egoiliarrentzako aparkaleku-plaza gutxiago daude bineta duten ibilgailuak baino, eta, gainera, gidari batzuen pikarokeria dela eta, ibilgailuan eranskailua jarrita eramatea nahitaezkoa ez denetik, ez dagozkien azalerako aparkalekuak erabiltzen dituzte.

Algo similar ocurre en el centro de la ciudad, donde además de haber menos plazas de aparcamiento de residentes que vehículos con viñeta, la picaresca de algunos conductores, desde que no es obligatorio llevar la pegatina en el vehículo, hace que ocupen plazas de aparcamiento en superficie que no les corresponden.

Hori dela eta, hauxe da gure

Por estos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELAZIOA

1. Zergatik kendu da ibilgailuetatik orain arte haiek identifikatzeko balio zuen egoiliarren eranskailua?
2. Gobernu-taldeak eta/edo Mugikortasun Zuzendaritzak zer abantaila ikusten dizkio bineta kentzeari?
3. Ba al dago donostiar-egoiliarren salaketarik edo kexarik gertatzen ari denaren aurrean?
4. Udal Gobernuak ba al du asmorik egoiliarrek eranskailua ibilgailuetan nahitaez jartzea berriro ere eskatzeko, era horretan, beste batzuek egoiliarren aparkalekuetan aparkatu ez dezaten?

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que se ha eliminado de los vehículos la pegatina de residentes que hasta ahora servía para identificarles?
2. ¿Qué ventajas encuentra el equipo de gobierno y/o el departamento de movilidad para haber eliminado la viñeta?
3. ¿Existen denuncias o quejas de los donostiarras-residentes ante lo que está ocurriendo?
4. ¿Piensan volver a exigir que los residentes exhiban la pegatina en sus vehículos para evitar que otros puedan aparcar en las plazas de residentes?

Donostia, 2025eko ekainaren 6an

Borja Corominas Fisas
Udal Talde Popularraren bozeramailea”

En San Sebastián, a 6 de junio de 2025

Borja Corominas Fisas
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Olatz Yarza andreak hitz egin du puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Interviene en este punto la Sra. Yarza Garagorri, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**32.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Martutene auzoan mugikortasunaren, garraioaren eta irisgarritasunaren arloan erantzun gabeko gabezia eta behar ugari egoteari buruzkoa.**

**32.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a la situación de múltiples carencias y necesidades no atendidas en materia de movilidad, transporte y accesibilidad en el barrio de Martutene.**

Arantza Gonzalez andreak interpelazio hau irakurritzat eman du:

"Victor Lasa Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, Martutene auzoko mugikortasunaren, irisgarritasunaren eta zerbitzuen esparruan dauden gabezia eta premia asebete gabekoen inguruko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Mugikortasuneko zinegotzi ordezkari Olatz Yarza andreari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Martutene auzoan duela urte asko daude egiturazko defizitak garraio publikoan, oinezkoen irisgarritasunean, bide-segurtasunean eta oinarrizko zerbitzuetan. Arazo horiek eragin zuzena dute bizilagunen eguneroko bizitzan, kirol- eta kultura-ekipamenduen erabiltzaileengan (adibidez, MKE) eta industrialdearen eraginkortasunean. Auzotarrek eskaerak behin eta berriz egin dituzten arren, puntu kritiko batzuetan Udalak egindako jarduketak partzialak edo eskasak izan dira, edo bestela Udalak ez du jarduketarik egin.

Arazo nagusien artean, honako hauek daude: Dbusen 26. lineak ordutegi- eta funtzio-estaldura mugatua du; amaituta dauden azpiegiturak ez dira erabiltzen, hala nola 27. poligonoaren atzealdeko irteera; udal-ibilgailuek maniobra arriskutsuak egin behar dituzte, esaterako, zaborra biltzeko kamioiak biribilgune berrian horrelakoak egin behar ditu; eta auzotarrek egindako proposamen zehatzei ez zaie erantzunik ematen, esaterako, geralekuak lekuz aldatzeko egindakoari.

Gainera, gaur egun Barkaiztegi bidea nahitaez erabili behar da ez dagoelako oinezkoentzako pasabiderik, eta bertan segurtasun-arazo larriak daude, bai argiztapen eskasa duelako, bai luiziak gertatzeko arriskua dagoelako, nahiz eta bertako ezponda egonkortzeko aurrekontu onetsi bat izan. Ingurune horretan bertan, hainbat bizilagunek salatzen dute muga-mugako egoeran daudela, eta mugitzeko beste modurik ez dutenez, Bonotaxiaren gisako zerbitzuak behar dituztela, orain arte aukera hori ukatu zaien arren. Aipatutako guztiagatik, hau da gure interpelazioa:

INTERPELAZIOA

1. Neguan, Dbusen 26. linearen azken zerbitzua zergatik da 21:40an, kontuan hartuta Martutene Kirol Elkartearen (MKE) erabiltzaileen eta bestelako gizarte- eta kirol-jardueretakoen beharrak ez direla behar bezala asetzen?

2. Aurreikusita al dago 26. linearen ordutegia

La Sra. González García da por leída la siguiente interpelación:

"Dr Victor Lasa, portavoz del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN a la Concejala Delegada de Movilidad, Olatz Yarza, para su tratamiento en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, relativa a la situación de múltiples carencias y necesidades no atendidas en materia de movilidad, transporte y accesibilidad en el barrio de Martutene.

JUSTIFICACIÓN

El barrio de Martutene sufre desde hace años una acumulación de déficits estructurales en materia de transporte público, accesibilidad peatonal, seguridad viaria y servicios básicos. Estos problemas afectan de manera directa a la vida diaria de sus vecinos, a los usuarios de equipamientos deportivos y culturales como el MKE, y a la operatividad del polígono industrial. A pesar de las reiteradas demandas vecinales, las actuaciones municipales han sido parciales, insuficientes o directamente inexistentes en algunos ámbitos críticos.

Entre los principales problemas se encuentra la limitada cobertura horaria y funcional de la Línea 26 de Dbus, la falta de uso de infraestructuras ejecutadas como la salida trasera del Polígono 27, maniobras de riesgo de vehículos municipales, como el camión de basura en la nueva rotonda, y propuestas concretas vecinales no atendidas como la reubicación de paradas.

Adicionalmente, el camino de Barkaiztegi, actualmente utilizado por obligación ante la falta de pasarela peatonal, presenta serios problemas de seguridad por iluminación insuficiente y peligro por desprendimientos, a pesar de tener presupuesto aprobado para estabilización del talud. En este mismo entorno, se denuncia la situación límite de varios vecinos que, en ausencia de alternativas de movilidad, requieren servicios como el Bonotaxi, negado hasta la fecha. Por ello presentamos la siguiente Interpelación:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué motivo la Línea 26 de Dbus mantiene un último servicio a las 21:40h en invierno, sin cubrir adecuadamente las necesidades de los usuarios del Martutene Kirol Elkartea (MKE) ni de otras actividades sociales y deportivas?

2. ¿Está previsto ampliar el horario o las frecuencias

zabaltzea edo linea horretako maiztasunak areagotzea, bai eta duela gutxi kendutako geralekuak birjartzea ere?

3. Zergatik erabiltzen da gutxiegi 27. poligonoko atzeko irteera, kontuan hartuta dagoeneko exekutatuta dagoela? Zer neurri aztertzen ari zarete irteera hori aktibatzeko?

4. Udal Gobernuak ba al daki zabor-kamioiak atzera egin behar duela auzoko biribilgune berrian? Biribilgunean bertan gelditzea baimentzeko aukera aztertu al da, irtenbide egokiena ez den arren?

a) Aztertu al da aurrerantz irteteko alternatibarik, hain zuzen ere maniobra arriskutsurik egin behar ez izateko eta bizitegi-eremuetan sartu behar ez izateko?

5. Zergatik ez da autobus-linearen hasierako geralekua (Trinketaren ondokoa) futbol-zelaiaren parean kokatzen, kontuan hartuta bertan jende gehiago ibiltzen dela?

a) Aztertu al da alboko geraleku bat ezartzeko aukera, horren ondorioz aparkaleku-plaza batzuk kendu beharko balira ere?

6. Zer aurreikuspen dago Barkaiztegi bideko ezponda egonkortzeko onartutako aurrekontua gauzatzeko?

7. Zer balorazio egin du Udalak Barkaiztegi bidean gaur egun oinezkoak gauez arriskuan jartzen dituen argiztapen faltaren inguruan?

a) Zergatik ez da farola pantailaturik jartzen, errepideetatik gertu dauden beste eremu batzuetan egiten den moduan?

b) Planteatu al da argiztapenean edo bidearen hobekuntzan egin beharreko inbertsioak ADIFek ordaintzea, hura baita obren ondorioz auzoa isolatuta geratzearen arduraduna?

8. Zergatik ez da orain arte bonotaxi bat gaitu Barkaiztegiko bizilagunentzat, kolektibo oso txikia izan arren (4 pertsona)? Zergatik aplikatzen dira neurri baliokideak beste eremu batzuetan eta ez kasu honetan?

a) Udal Gobernuak aztertu al du irtenbide espezifiko bat aplikatzea, ADIFekin hitzarmen bat egitea, ala oinarrizko gizarte-mugikortasunaren premia horri premiazko erantzuna emateko baliabide alternatiboren bat aplikatzea, bereziki kontuan hartuta badagoela bizilagun bat, ospitaleratutako senide bat bisitatu ahal izateko hilean 1.000 euro baino gehiago gastatzen ari

de la Línea 26, así como reponer las paradas suprimidas recientemente?

3. ¿Por qué se está infrautilizando la salida trasera del Polígono 27, ya ejecutada? ¿Qué medidas se están considerando para activarla?

4. ¿Tiene conocimiento el Gobierno municipal de que el camión de la basura debe maniobrar marcha atrás en la nueva rotonda del barrio? ¿Se ha considerado permitir su parada dentro de la propia rotonda como mal menor?

a) ¿Se ha valorado una alternativa de salida hacia adelante, que evite maniobras de riesgo sin invadir zonas residenciales?

5. ¿Por qué no se reubica la parada inicial de la línea de bus (junto al Trinquete) a la altura del campo de fútbol, donde hay mayor afluencia?

a) ¿Se considera la posibilidad de habilitar una zona de parada lateral, aunque implique la supresión de algunas plazas de aparcamiento?

6. ¿Qué previsión hay para la ejecución del presupuesto aprobado para la estabilización del talud en el camino de Barkaiztegi?

7. ¿Qué valoración ha hecho el Ayuntamiento sobre la falta de iluminación en el camino de Barkaiztegi, que actualmente pone en riesgo a los peatones por la noche?

a) ¿Por qué no se opta por farolas apantalladas, como se hace en otras zonas cercanas a carreteras?

b) ¿Se ha planteado que la inversión en iluminación o mejora del camino pueda repercutirse a ADIF, como entidad responsable del aislamiento actual del barrio tras las obras?

8. ¿Por qué no se ha habilitado hasta la fecha un Bonotaxi para las vecinas y vecinos de Barkaiztegi, pese a tratarse de un colectivo extremadamente reducido (4 personas)? ¿Por qué sí se aplican medidas equivalentes en otras zonas y no en este caso?

a) ¿Valora el Gobierno municipal una solución específica, o algún tipo de convenio con ADIF o recurso alternativo para dar respuesta urgente a esta necesidad de movilidad social básica, especialmente en casos como el de una vecina que está gastando más de 1.000€ al mes para poder visitar a un familiar hospitalizado?

dena?

Donostia, 2025eko ekainaren 6a

Victor Lasa
Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea"

Olatz Yarza andreak, Carlos Garcia jaunak eta Arantza Gonzalez andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**33.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, eskola-inguruneetan trafikoa lasaitzeari buruzkoa.**

Arantza Gonzalez andreak interpelazio hau irakurritzat eman du:

"Elkarrekin Donostia udal-talde mistoko bozeramaile Victor Lasa jaunak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, INTERPELAZIO hau aurkezten dio Olatz Yarza Mugikortasuneko zinegotzi ordezkariari, eskola-inguruneetako trafikoa baretzeari buruz, GUNE PUBLIKOEN BATZORDEAN azter dezan.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiako ikasleen segurtasunak eta ongizateak lehentasuna izan behar dute hiri-mugikortasuneko politiketan. Duela gutxi egindako azterlan eta neurketa batzuek agerian utzi dute trafikoari lotutako kutsadura-maila kezkagarriak eta arriskuak daudela ikastetxe batzuen inguruan.[1]

Zehazki, Ekologistak Martxan elkarteak 2025eko apirilean aurkeztutako txostenak agerian utzi zuen Donostian aztertutako eskola-ingurune guztiek gainditzen dituztela Osasunaren Mundu Erakundeak gomendatutako nitrogeno dioxidoaren ($NO_2$) mailak. Gainera, ikastetxe horien herenak gainditu egiten du indarrean dagoen legezko muga, $NO_2$-aren 40 µg/m³, eta Ategorrieta, Aiete eta Ibaeta eremuak dira kaltetuenak.[2]

Hainbat ikastetxetan ezarri dira eskola-patioak eraldatzeko proiektuak, hala nola Amara Berrin eta Zuhaiztin, baina ekintza horiek barneko jolas-espazioak hobetzera bideratu dira, eta ez diote zuzenean heldu ikastetxeetako sarbideetako trafikoa baretzeari.

Eskola-inguruneetan trafikoa murrizteko eta segurtasuna hobetzeko neurri eraginkorrik ez egoteak kexa ugari eragin ditu hezkuntza- eta auzo-komunitatean. Nahitaezkoa da Udalak estrategia integral bat hartzea, trafikoa baretzea, airearen kalitatea hobetzea eta eskola-eremuetako bide-

Donostia, a 06 de Junio de 2025

Dr Victor Lasa
Portavoz del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia"

Intervienen en este punto la Sra. Yarza Garagorri, el Sr. García Hernández y la Sra. González García, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**33.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa a la pacificación del tráfico en entornos escolares.**

La Sra. González García da por leída la siguiente interpelación:

"Dr Victor Lasa, portavoz del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente articulo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN a la Concejala Delegada de Movilidad, Olatz Yarza, para su tratamiento en la COMISIÓN DE ESPACIO PUBLICO, relativa a la pacificación del trafico en entornos escolares.

JUSTIFICACIÓN

La seguridad y el bienestar de los escolares en Donostia deben ser una prioridad en las políticas de movilidad urbana. Diversos estudios y mediciones recientes han evidenciado niveles preocupantes de contaminación y riesgos asociados al trafico en las inmediaciones de varios centros educativos.[1]

En particular, el informe de Ecologistas en Acción – Ekologistak Martxan, presentado en abril de 2025, revelo que todos los entornos escolares analizados en Donostia superan los niveles de dióxido de nitrógeno ($NO_2$) recomendados por la Organización Mundial de la Salud. Ademas, un tercio de estos centros supera el limite legal vigente de 40 µg/m3 de $NO_2$, siendo las zonas de Ategorrieta, Aiete e Ibaeta las mas afectadas.[2]

Aunque se han implementado proyectos de transformación de patios escolares en centros como Amara Berri y Zuhaizti, estas acciones se han centrado en la mejora de los espacios recreativos internos y no han abordado directamente la pacificación del trafico en los accesos a los centros.

La falta de medidas efectivas para reducir el trafico y mejorar la seguridad en los entornos escolares ha generado reiteradas quejas por parte de las comunidades educativas y vecinales. Es imperativo que el Ayuntamiento adopte una estrategia integral que incluya la pacificación del trafico, la mejora de la

segurtasuna barne hartuko dituena.

INTERPELAZIOA

1. Udal-gobernuak zergatik ez du trafikoa baretzeko neurririk ezarri kutsadura- eta arriskugarritasun-maila handiko eskola-inguruneetan?

2. Zer irizpide objektibo jarraitu dira eskola-inguruneetako esku-hartzeak lehenesteko?

3. Ba al dago plan zehatzik, epeak zehaztuta dituenik, kutsadurak eta ibilgailuen trafikoak gehien eragiten dien eskola-inguruneetan trafiko-baretzeari heltzeko?

4. Kontuan hartu al da $NO_2$-maila handieneko ikastetxeen inguruetan trafikoa murrizteko aukera?

5. Zer koordinazio-neurri hartzen ari dira Mugikortasun, Hezkuntza eta Ingurumen atalen artean eskola-inguruneetako problematikari modu integralean heltzeko?

6. Nola ari dira eskola- eta auzo-komunitateak beren inguruneetan trafikoa baretzeko neurriak planifikatzen eta betearazten?

7. Zer aurrekontu eta giza baliabide erabiltzen ari dira eskola-inguruneetan trafikoa baretzeko neurriak ezartzeko?

--------------------------------------------

1 spain.cleancitiescampaign.org+1ondavasca. com+1

2 spain.cleancitiescampaign.org+4ekologistak martxan.org+4ondavasca.com+4donostia.eus+11ecologistasenaccion.org+11noticiasdegipuzkoa.eus+11

Donostia, a 06 de Junio de 2025

Victor Lasa
Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea"

Olatz Yarza eta Arantza Gonzalez andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**34.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Martutene auzoan mugikortasunaren,**

calidad del aire y la seguridad vial en las zonas escolares.

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué motivo el gobierno municipal no ha implementado medidas de pacificación del tráfico en entornos escolares con altos niveles de contaminación y peligrosidad?

2. ¿Qué criterios objetivos se han seguido para priorizar las intervenciones en los entornos escolares?

3. ¿Existen planes concretos y con plazos definidos para abordar la pacificación del trafico en los entornos escolares más afectados por la contaminación y el tráfico vehicular?

4. ¿Se ha considerado la implementación de restricciones de tráfico en las inmediaciones de los centros escolares con mayores niveles de $NO_2$?

5. ¿Qué medidas de coordinación se están llevando a cabo entre los departamentos de Movilidad, Educación y Medio Ambiente para abordar de manera integral la problemática en los entornos escolares?

6. ¿Cómo se esta involucrando a las comunidades escolares y vecinales en la planificación y ejecución de las medidas de pacificación del tráfico en sus entornos?

7. ¿Qué recursos presupuestarios y humanos se están destinando para la implementación de medidas de pacificación del tráfico en los entornos escolares?

--------------------------------------------

1 spain.cleancitiescampaign.org+1ondavasca. com+1

2 spain.cleancitiescampaign.org+4ekologistak martxan.org+4ondavasca.com+4donostia.eus+11 ecologistasenaccion.org+11noticiasdegipuzkoa.eus+11

Donostia, a 06 de Junio de 2025

Dr Victor Lasa
Portavoz del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia"

Intervienen en este punto las Sras. Yarza Garagorri y González García, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**34.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, relativa al impacto de la base**

**garraioaren eta irisgarritasunaren arloan erantzun gabeko gabezia eta behar ugari egoteari buruzkoa.**

Arantza Gonzalez andreak interpelazio hau irakurritzat eman du:

“Victor Lasa Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, ADIFen muntaketa-baseak Martuteneko Agustindarren ikastetxe izandako eraikinean duen eraginari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Hirigintzako zinegotzi ordezkari Nekane Arzallusi, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) azter dadin.

JUSTIFIKAZIOA

Martuteneko Agustindarren ikastetxe izandako eraikinerako hiri-berrantolaketarako plan bat onartu du Donostiako Udalak, lurzatia irakaskuntzarako eta zuzkidura-bizitokietarako erabiltzeko. Hala ere, ADIFek euskal Y-aren obretarako muntaketa- eta metaketa-base bat instalatu berri du bertan, eta horrek kezka sortu du auzoko bizilagunen eta kolektiboen artean.

Muntaketa-oinarria aldi baterakoa dela iragarri den arren, haren konfigurazioak, hesiak eta lursailaren okupazio osoak irauteko bokazioa iradokitzen dute, edo, gutxienez, denbora luzez erabiltzeko asmoa dagoela, eta hori kontraesanean dago lurzati horretarako aurreikusitako erabilera publikoekin. Nolanahi ere, aldi baterako bada ere, eragin nabarmena izango duela aurreikusten da. Egoera horrek zuzeneko eragina izan lezake Eusko Jaurlaritzak berriki iragarritako prestakuntza-jarduerak abian jartzeko orduan, eta epe ertainera auzoa berroneratzeko proiektu estrategiko baten garapena ere arriskuan jar lezake.

INTERPELAZIOA

1. Zergatik baimendu du udal-gobernuak ADIFek muntaketa-base bat instalatzea prestakuntza-erabileretarako lurzati batean, espazio horretarako aurreikusitako planekiko bateragarritasuna bermatu gabe?

2. Udal Gobernuak ba al daki ADIFek lurzati hori zenbat denboran okupatuko duen?

3. Duela gutxi jakinarazi da Agustindarren eraikina irakaskuntza-jardueratarako erabiliko dela. Zer eragin izango du okupazio horrek helburu horretan?

**de montaje de ADIF en el antiguo colegio de los Agustinos de Martutene.**

La Sra. González García da por leída la siguiente interpelación:

“Dr Victor Lasa, portavoz del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN a la Concejala Delegada de Urbanismo, Nekane Arzallus, para su tratamiento en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos, relativa al impacto de la base de montaje de ADIF en el antiguo colegio de los Agustinos de Martutene.

JUSTIFICACIÓN

El antiguo colegio de los Agustinos de Martutene ha sido objeto de un plan de reordenación urbana aprobado por el Ayuntamiento de Donostia, con el objetivo de destinar la parcela a usos docentes y alojamientos dotacionales. Sin embargo, la reciente instalación por parte de ADIF de una base de montaje y acopios para las obras de la “Y vasca” en este emplazamiento ha generado preocupación entre los vecinos y colectivos del barrio.

Aunque se ha anunciado que la base de montaje es temporal, su configuración, vallado y ocupación total del terreno sugieren una vocación de permanencia o, al menos, un uso prolongado en el tiempo, que entra en contradicción con los usos públicos previstos. En cualquier caso, incluso si se tratara de una situación temporal, su impacto se prevé significativo. Esta situación podría interferir de forma directa con la puesta en marcha de actividades formativas anunciadas recientemente por el Gobierno Vasco, y comprometer a medio plazo el desarrollo de un proyecto estratégico para la regeneración del barrio.

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué ha autorizado el Gobierno municipal la instalación de una base de montaje por parte de ADIF en una parcela destinada a usos formativos, sin garantizar la compatibilidad con los planes previstos para ese espacio?

2. ¿Qué información tiene el Gobierno municipal sobre la duración exacta de la ocupación de la parcela por parte de ADIF?

3. ¿Qué impacto tendrá esta ocupación en el anunciado nuevo uso docente de Agustinos?

4. Udala koordinatu al da ADIFekin inpaktu horrek irakaskuntza-erabilera hori arriskuan jartzen ez duela ziurtatzeko?

5. Udal Gobernuak eskatu al du jarduera amaitu ondoren oinarria lehengoratzeko eta eraisteko plan zehatzik?

6. Zer neurri hartzen ari dira muntaketa-oinarriak hiri-ingurunean eta Martuteneko herritarren bizi-kalitatean duen inpaktua minimizatzeko?

7. Zer berme eskaintzen du Udalak lurzatia jatorrizko egoerara itzul dadin eta etorkizunean indarreko plangintzan aurreikusitako erabileretara bidera dadin?

Donostia, 2025eko ekainaren 6a

Victor Lasa
Elkarrekin Donostia talde mistoaren bozeramailea"

4. ¿Se ha coordinado el Ayuntamiento con ADIF para asegurar que este impacto no comprometa dicho uso?

5. ¿Ha solicitado el Gobierno municipal un plan detallado de restitución y desmantelamiento de la base, una vez finalizada su actividad?

6. ¿Qué medidas se están tomando para minimizar el impacto de la base de montaje en el entorno urbano y en la calidad de vida de los vecinos y vecinas de Martutene?

7. ¿Qué garantías ofrece el Ayuntamiento para que la parcela sea devuelta a su estado original y se destine en el futuro a los usos previstos en el planeamiento vigente?

Donostia, a 06 de Junio de 2025

Dr Victor Lasa
Portavoz del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia"

Juan Marrero jaunak eta Arantza Gonzalez andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto el Sr. Marrero Vizcaíno y la Sra. González García en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**35.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Easo kaleko obrei buruzkoa.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

"Talde Popularreko zinegotzi Vanesa Velez De Pablosek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, Easo kaleko obrei buruzko INTERPELAZIO hau egiten dio Eneko Goia Laso alkateari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Joan den astean ikusi ahal izan genuen nola altxatzen ari ziren Easo kaleko zirkulazio-errei bakarra izango denaren galtzada-harriak, hain zuzen ere, San Martin kaletik Askatasunaren hiribidearen arteko zatian. Obra horiek uztailaren hasierarako amaituta egongo zirela esan zenuten.

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Gobernu Taldeak zergatik ez die gainerako talde politikoei, obra horien eraginpeko merkatari eta auzotar eta oro har herritarrei jakinarazten, zer inguruabar direla eta altxatu behar izan diren galtzada-harriak, ondorioz

**35.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre las obras en la calle Easo.**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

"Vanesa Vélez De Pablos, Concejala del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos , sobre las obras en la calle Easo.

JUSTIFICACIÓN

La semana pasada, pudimos ver cómo se levantaban los adoquines colocados en lo que se supone será el único carril de circulación de la calle Easo desde la calle San Martín hasta la Avenida de la Libertad. Obras que dijeron estarían finalizadas a primeros de julio.

Por esos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no comparte con el resto de grupos políticos, con los comerciantes y vecinos afectados por dichas obras y con la ciudadanía en general las circunstancias que han llevado al

obrak atzeratuko direla kontuan hartuta?

2. Gobernu Taldea ETSren aldetik informazio puntuala jasotzen al du Topoaren obrek eragindako Easo eta San Bartolome eremuak urbanizatzeko obren exekuzioaren inguruan?

3. Erantzuna baiezkoa bada, partekatu al dezakezue informazio hori?

4. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

5. Obrak hasi aurretik, Gobernu Taldeak ba al du asmorik obrak hasi baino lehen Easo kaletik pasatzen ziren eta bertan geratzen ziren lineen ibilbidea aldatzeko, berriro ere Easo kaletik pasa daitezen?

6. Hala bada, zein? Noiz?

7. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik? Denak ez, baina batzuk bai? Azken kasu horretan, zer linea?

Donostia, 2025eko ekainaren 5a

Vanesa Vélez De Pablos
PP udal taldeko zinegotzia”

Olatz Yarza andreak eta Jorge Mota jaunak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

levante de los adoquines y, por tanto, al retraso de las mencionadas obras?

2. ¿Tiene el equipo de gobierno información puntual por parte de ETS sobre la ejecución de las obras de urbanización de Easo y San Bartolomé afectadas por las obras del Topo?

3. En caso afirmativo, ¿pueden compartir dicha información?

4. En caso negativo, ¿por qué?

5. ¿Tiene el Equipo de Gobierno intención de restituir por la calle Easo el trazado de todas las líneas de autobús que pasaban y tenían parada a lo largo de la calle, antes del comienzo de las obras?

6. En caso afirmativo, ¿cuales?, ¿cuándo?

7. En caso negativo, ¿por qué?, ¿todas no, pero algunas sí?, en este último caso, ¿qué líneas?

En San Sebastián, a 5 de junio de 2025

Vanesa Vélez De Pablos
Concejala Grupo Municipal PP”

Intervienen en este punto la Sra. Yarza Garagorri y el Sr. Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**<u>36.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Irisgarritasun Planari buruzkoa.</u>**

Arantza Gonzalez andreak interpelazio hau azaldu du:

“Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotzi Arantza Gonzalez Garciak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Irisgarritasun Planari buruzko INTERPELAZIO aurkezten dio Hiri Mantentze eta Zerbitzuetako zinegotzi ordezkari García jaunari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Mugikortasun Zuzendaritzak hainbat ekarpen egin dizkio "Donostiako Ostalaritzarako Jabari Publikoko Lurzorua Okupatzea Arautzen duen Ordenantza Bigarren Aldiz Aldatzeko Proiektuari". Ekarpenak baino gehiago, proiektuaren osoko zuzenketatzat jo daitezke.

**<u>36.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, en relación con el Plan de Accesibilidad.</u>**

La Sra. González García expone la siguiente interpelación:

“Arantza González García, Concejala del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al concejala delegado de Mantenimiento y Servicios Urbanos, Sr. García, para su tratamiento en la comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos en relación con el Plan de Accesibilidad.

JUSTIFICACIÓN

El Departamento de Movilidad ha realizado una serie de aportaciones al “Proyecto de Segunda Modificación de la Ordenanza Reguladora de las Ocupaciones de Suelo de Dominio Público para la Hostelería en Donostia / San Sebastián”, que más que aportaciones se podrían calificar de enmienda a

la totalidad al propio Proyecto.

Besteak beste, berariaz aipatzen du bai Eusko Jaurlaritzak, ISEK Irisgarritasuna Sustatzeko Euskal Kontseiluaren bidez, bai Irisgarritasunaren Euskadiko Behatokiak "Irisgarritasunaren Legea ezartzean zorroztasun eta sentsibilitate handiagoa eskatu diote Udal honi, eta askotan egin digute gonbita Irisgarritasun Plan bat onartzera eta Irisgarritasun Unibertsalaren Euskadiko Estrategiaren aginduak betetzera".

Entre ellas, hace una mención expresa a que tanto desde el Gobierno Vasco a través de ISEK, Consejo Vasco para la Promoción de la Accesibilidad, como desde el Observatorio de Euskadi para la Accesibilidad, “se ha reclamado a este Ayuntamiento un mayor rigor y sensibilidad en la implementación de la Ley de Accesibilidad, y hemos sido invitados en numerosas ocasiones a aprobar un Plan de Accesibilidad y a seguir los preceptos de la Estrategia Vasca para la Accesibilidad Universal de Euskadi”.

Ez da udal-gobernuari Irisgarritasun Plan bat egiteko eskatzen zaion lehen aldia, hori aspaldi egin behar baitzen.

No es la primera vez que se solicita al gobierno municipal la elaboración del Plan de Accesibilidad puesto ya debería haberse realizado hace tiempo.

Era berean, Mugikortasun Zuzendaritzak jakinarazi du ordenantza-proiektua egiteko partaidetza-prozesuan ez zaiela parte hartzeko gonbitik luzatu ordenantzak gehien eragindako kolektibo batzuei, hala nola desgaitasunen bat duten pertsonenei. Kontuan hartu behar da desgaitasunen bat duten pertsonek urtean kexa ugari helarazten dizkietela Hiri Mantentze eta Zerbitzuen Zuzendaritzari eta Mugikortasun Zuzendaritzari, hain zuzen ere Irisgarritasun Legea ez betetzeagatik.

Asimismo, el departamento de Movilidad informa de que durante el proceso participativo para la elaboración del Proyecto de ordenanza, no se ha invitado a participar a algunos de los colectivos más afectados por la misma, como el de personas con discapacidad, del que tanto el departamento de Mantenimiento y Servicios Urbanos como el de Movilidad reciben tantas quejas al cabo del año por el incumplimiento de la Ley de Accesibilidad.

Hori dela eta, hauxe da gure

INTERPELAZIOA

1. Udal-gobernuak zergatik ez du hiriko Irisgarritasun Plana egiten?

2. Udal-gobernuak aurreikusita al du legegintzaldi honetan plan hori egitea, Mugikortasun Zuzendaritzak egindako ekarpenak ikusita eta Eusko Jaurlaritzak ere ISEKen eta Irisgarritasunaren Euskadiko Behatokiaren bidez hori eskatu duela kontuan hartuta?

3. Udal-gobernuak zergatik ez ditu gonbidatu hirian desgaitasuna duten pertsonen kolektiboak ordenantza aldatzeko partaidetza-prozesuan parte hartzera?

Donostia, 2025eko ekainaren 6an

Arantza González García
Elkarrekin Donostia talde mistoko zinegotzia”

Por todo ello, presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué razón el gobierno municipal no elabora el Plan de Accesibilidad de la ciudad?

2. ¿Tiene previsto hacerlo a lo largo de esta legislatura a la vista de las aportaciones del departamento de Movilidad y de que también el Gobierno Vasco lo ha reclamado a través tanto del ISEK como del Observatorio de Euskadi para la Accesibilidad?

3. ¿Por qué razón el gobierno no ha invitado a participar en el proceso participativo de la modificación de la Ordenanza a los colectivos de personas con discapacidad de la ciudad?

Donostia, a 6 de junio de 2025

Arantza González García
Concejala del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia”

Carlos Garcia jaunak eta Arantza Gonzalez andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto el Sr. García Hernández y la Sra. González García en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(14:01etik 14:03ra arte Itziar Iturri andrea bilkuratik atera da)*

*(De 14:01 h a 14:03 h la Sra. Iturri Arrazola se ausenta de la sesión)*

**37.- Interpelazioa, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, garraio publikoaren % 50eko deskontuari buruzkoa.**

Arantza Gonzalez andreak interpelazio hau azaldu du:

“Arantza González García Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, garraio publikoko %50eko deskontuari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Mugikortasun eta Garraio Jasangarriko zinegotzi ordezkari Yarza andreari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Uztailaren 1etik aurrera, garraio publikoan oro har egiten den %50eko deskontua aldatu egingo da. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak (GGLA) 14 urtera arteko adingabeek (horiek barne) garraio publikoan doan bidaiatzea onartu zuen apirilean. Gainera, 25 urtetik beherakoek %50eko deskontua izaten jarraituko dute, eta garraio publikoaren gainerako erabiltzaileek %40ko hobaria izango dute.

Hala ere, urtarrilaren 28ko 1/2025 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, Mugikortasun Ministerioak 15 urtetik beherakoentzako doakotasuna finantzatuko du, bai eta %50eko deskontua gazteentzako abonuetan. Gainerako bidaia-txarteletan –turistikoak, soilak eta joan-etorrikoak izan ezik–, gutxienez %40ko deskontua sustatzen da, eta horren %20 kofinantzatu beharko da.

Hau da, gainerako tituluei %50eko deskontua aplikatzen jarrai liteke, baldin eta tokiko operadoreek %20ko kofinantzaketa egiten badute.

Zalantzarik gabe, 2022an %50eko deskontua indarrean jarri zenetik, bidaia-kopuruak eta erabiltzaileek nabarmen egin dute gora. Horrez gain, $CO_2$ isurketen eta trafikoaren murrizketan ere eragina izan du.

Gainera, ezin dugu ahaztu garraio publikoaren prezioaren igoerak eragin negatiboa izango duela emakumeongan; izan ere, emakumeok erabiltzen dugu gehien garraio publikoa, emakumeok ditugu diru-sarrera apalenak eta beraz, emakumeok dugu ibilgailu pribatu bat izateko aukera gutxien.

Hori dela eta, hauxe da gure

**37.- Interpelación, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, en relación con el descuento del 50% en el transporte público.**

La Sra. González García expone la siguiente interpelación:

“Arantza González García, Concejala del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN a la concejala delegada de Movilidad y Transporte Sostenible, Sra. Yarza, para su tratamiento en la comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos en relación con el descuento del 50% en el transporte público.

JUSTIFICACIÓN

A partir del 1 de julio, el descuento del 50% generalizado en el transporte público va a ser modificado. De esta manera, la Autoridad Territorial del Transporte de Gipuzkoa (ATTG) aprobó en el mes de abril la gratuidad de las y los menores hasta los 14 años (estos incluidos). Además, las personas menores de hasta 25 años seguirán disfrutando de descuentos del 50% mientras que el resto de personas usuarias del transporte público tendrán bonificaciones del 40%.

No obstante, según el RDL 1/2025, de 28 de enero, en cuanto al transporte urbano y metropolitano de titularidad autonómica y local, el Ministerio de Movilidad financiará su gratuidad para los menores de 15 años y un descuento del 50% para abonos joven. En el resto de los títulos -salvo los turísticos, los sencillos y los de ida y vuelta- se promueve un descuento de, al menos, el 40%, que deberá ser cofinanciado al 20% .

Es decir, que se podría seguir aplicando el descuento del 50% al resto de títulos, siempre que se cofinancie con un 20% por parte de los operadores locales.

Está fuera de toda duda el importante incremento tanto del número de viajes como de personas usuarias que el descuento del 50% ha supuesto desde su entrada en vigor en 2022. Además del impacto en la reducción de las emisiones de $CO_2$ y en la del tráfico.

Además, no podemos ignorar que el impacto negativo que la subida del precio del transporte público tendrá en las mujeres, dado que somos quienes mayoritariamente lo utilizamos, quienes tenemos menores ingresos y menos acceso a vehículos privados.

Por todo ello, presentamos la siguiente:

INTERPELAZIOA

1. Zergatik ez da mantenduko %50eko deskontua garraio publikoaren prezioan?

2. Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak aztertu al du %50eko deskontuari eusteko aukera, Mugikortasun Ministerioak haren zati bat kofinantzatuko lukeela kontuan hartuta?

3. Udal-gobernuak zer jarrera izan du Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan, hain zuzen ere %50eko deskontuari eusteari edo ez eusteari dagokionez?

4. Udal-gobernuak aztertu al du garraio publikoaren prezioaren igoerak emakumeengan izango duen eragin negatiboa?

Donostia, 2025eko ekainaren 6a

Arantza González García
Elkarrekin Donostia talde mistoko zinegotzia"

INTERPELACIÓN

1. ¿Por qué razón no se va a mantener el descuento del 50% en el precio del transporte público?

2. ¿Se ha analizado en la ATTG la posibilidad del mantenimiento del descuento del 50%, dado que el Ministerio de Movilidad cofinanciaría parte del mismo?

3. ¿Cuál ha sido la posición del gobierno municipal en la ATTG en relación con el mantenimiento o no del descuento del 50%?

4. ¿Ha analizado el gobierno municipal el impacto negativo que el aumento del precio del transporte público va a tener en las mujeres?

Donostia, a 6 de junio de 2025

Arantza González García
Concejala del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia"

Olatz Yarza eta Arantza Gonzalez andreek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Intervienen en este punto las Sras. Yarza Garagorri y González García en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**<u>38.- Galdera, EH Bildu taldeak aurkeztua, Bera Berako berrurbanizazioari buruzkoa.</u>**

Itziar Iturri andreak galdera hau irakurritzat eman du:

"Itziar Iturri Arrazolak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Araudi Organikoaren 135. artikuluak ematen dion aukera baliatuz, Bera Bera auzoko urbanizazioari buruzko galdera egiten dio Juan Marrero Vizcaíno zinegotzi jaunari, hari buruzko azalpenak Gune Publikoen Batzordean eman ditzan.

JUSTIFIKAZIOA

Legealdi honetan hainbat aldiz ekarri dugu Bera Bera auzuneko urbanizazio proiektua batzordetara. Lehenengo fasea burutu zen, 2A fasea urrian hasi zen eta amaitzear dago. 2B faseari dagokionez parte-hartze prozesu bat burutu zuen udalak eta ustez proiektuaren idazketa lizitatu da. Baina, hirugarren faseari buruzko informaziorik ez dugu.

Dakigun bakarra da, gune horietako etxeetatik erdigunera iristeko egun bizilagunek autoa erabiltzen dutela batez ere. Oinez iristeko eskailerak igo eta jaitsi behar dituztela nahi eta nahi ez; mugikortasun

**<u>38.- Pregunta, presentada por el Grupo EH Bildu, sobre la reurbanización de Bera Bera.</u>**

La Sra. Iturri Arrazola da por leída la siguiente pregunta:

"Itziar Iturri Arrazola, concejala del grupo municipal de EH BILDU, al amparo del artículo 135 del Reglamento Orgánico del Pleno, formula la siguiente pregunta, relativa a la urbanización del barrio de Bera Bera, al concejal delegado Juan Marrero Vizcaíno, para su tratamiento en la Comisión de Espacio Público.

JUSTIFICACIÓN

En esta legislatura hemos traído a comisión el proyecto de urbanización del barrio de Bera Bera en varias ocasiones. La primera fase ya se ejecutó, la fase 2A se inició en octubre y está a punto de finalizar. En cuanto a la fase 2B, el Ayuntamiento llevó a cabo un proceso participativo y supuestamente se ha licitado la redacción del proyecto. Sin embargo, no disponemos de información sobre la tercera fase.

Lo único que sabemos es que hoy en día los vecinos y vecinas de esta zona utilizan principalmente el coche para llegar al centro desde sus casas. Que para acceder a pie inevitablemente tienen que subir y bajar

arazoak edo haur txikiak dituzten bizilagunek buelta osoa eman behar diotela auzuneari edo autoz mugitzera behartua daudela.

Gauzak horrela, eta bizilagunen eskaerari erantzunez, behean sinatzen duen zinegotziak honako galderak egiten ditu:

-Noiz espero da 2A fasea amaitzea?

-Zein fasetan dago 2B fasea? Proiektuaren idazketa lizitatu al da? Hasi al dira idazketa lanak? Noiz aurreikusten da proiektua martxan jartzea?

-Hirugarren eta azken faseari buruz ba al dago kronogramarik?

-Hirugarren eta azken faseari dagokionez aurreikusten al da irisgarritasuna hobetzea?. Asmorik ba al du Udal Gobernuak arazo honi irtenbide bat emateko urbanizazioaren azken fasean?

Donostian, 2025eko ekainaren 6a

Itziar Iturri Arrazola
EH Bildu udal taldeko zinegotzia"

Juan Marrero jaunak eta Itziar Iturri andreak hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(14:15ean Victor Lasa jauna bilkurara bertaratu da)*

**39.- Iradokizuna, Elkarrekin Donostia taldeak aurkeztua, Dbusen Urteko Memoriari buruz.**

Arantza Gonzalez andreak iradokizun hau irakurritzat eman du:

"Arantza González García Elkarrekin Donostia udal talde mistoko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, Dbusen Urteko Memoriari buruzko IRADOKIZUN hau aurkezten dio Mugikortasun eta Garraio Jasangarriko zinegotzi ordezkari Yarza andreari, Gune Publikoen Batzordean (Obrak eta Hiri Zerbitzuak) aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Dbusen urteko memorian, Dbusen zein Dbizin egindako bidaien kopuruari buruzko datuak jasotzen dira, lineen eta hilabeteen arabera zehaztuta. Hala

escaleras; que los vecinos y vecinas con problemas de movilidad o con niñas o niños pequeños tienen que dar toda la vuelta al barrio o que están obligados a moverse en coche.

Por todo ello, y atendiendo la petición de los vecinos y vecinas, la concejala abajo firmante formula las siguientes preguntas:

-¿Cuándo se espera que finalice la fase 2A?

-¿En qué fase se encuentra la fase 2B? ¿Se ha licitado la redacción del proyecto? ¿Se han iniciado los trabajos de redacción? ¿Cuándo se prevé poner en marcha el proyecto?

-¿Existe un cronograma sobre la tercera y última fase?

-Respecto a la tercera y última fase, ¿se prevé mejorar la accesibilidad?. ¿Tiene intención el Gobierno municipal de dar una solución a este problema en la última fase de la urbanización?

San Sebastián, a 6 de junio de 2025

Itziar Iturri Arrazola,
concejala del grupo municipal EH Bildu"

Intervienen en este punto el Sr. Marrero Vizcaíno y la Sra. Iturri Arrazola, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(A las 14:15 h el Sr. Lasa Briz se incorpora a la sesión)*

**39.- Sugerencia, presentada por el Grupo Elkarrekin Donostia, sobre la Memoria Anual de Dbus.**

La Sra. González García da por leída la siguiente sugerencia:

"Arantza González García, Concejala del grupo municipal mixto Elkarrekin Donostia, al amparo del vigente artículo 137 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente SUGERENCIA a la concejala delegada de Movilidad y Transporte Sostenible, Sra. Yarza, para su tratamiento en la comisión de Espacio Público, Obras y Servicios Urbanos sobre la Memoria Anual de Dbus.

JUSTIFICACIÓN

La Memoria Anual de Dbus incluye datos del número de viajes realizados tanto en Dbus como en Dbizi, detallados por líneas y meses. No obstante, salvo error u omisión, no hemos encontrado información

ere, akatsik edo omisiorik ezean, ez dugu aurkitu generoaren, adinaren eta lerroaren arabera bereizitako informaziorik. MUGI txartelaren titular diren erabiltzaileen datuak aztertuta lor liteke datu hori, donostiarren artean ordaintzeko modurik ohikoenetako bat baita txartel hori.

Informazio hori oso baliagarria da autobus eta bizikleta zerbitzuen erabiltzaileen arabera beharrezkoak izan daitezkeen aldaketak egiteko.

Hori dela eta, hauxe da gure

IRADOKIZUNA

1. Dbusen datozen urteko memorietan autobusaren eta bizikletaren erabiltzaileen generoaren eta adinaren araberako adierazleak txertatzea.

Donostia, 2025eko ekainaren 6an

Arantza González García
Elkarrekin Donostia talde mistoko zinegotzia"

Olatz Yarza andreak hitz egin du puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

*(Une honetan Arantza Gonzalez andrea bileratik joan da)*

**<u>40.- Bozeramaileen Batzordeak bidalitako ekimenak, baldin bada.</u>**

**<u>40.1.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, 9 linearen ibilbidea eta geralekuen aldaketari buruzkoa.</u>**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

"Talde Popularraren bozeramaile Borja Corominas Fisasek, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Dbusen 9. linearen ibilbidea aldatzeari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

Donostiar ugari kexu dira, Udal honek Dbusen 9. linearen ibilbidea eta geralekuak aldatzea erabaki zuenetik.

Bere garaian, Mugikortasuneko Zuzendaritzak adierazi zuen bazuela egindako aldaketa horiek berraztertzeko asmoa. Baina denbora aurrera doa,

desagregada por género, edad y línea, información que se puede obtener de las personas usuarias titulares de la MUGI, ya que es una de las formas de pago más habituales entre los y las donostiarras.

Esta información es muy útil a la hora de realizar cambios o modificaciones que pudieran resultar necesarias en función de las personas usuarias tanto de los servicios de autobús como de bicicleta.

Por todo ello, presentamos la siguiente:

SUGERENCIA

1. Incluir en las próximas memorias anuales de Dbus indicadores por género y edad de las personas usuarias tanto del autobús como de la bicicleta.

Donostia, a 6 de junio de 2025

Arantza González García
Concejala del Grupo Mixto Elkarrekin Donostia"

Interviene en este punto la Sra. Yarza Garagorri, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

*(En este momento la Sra. González García abandona la sesión)*

**<u>40.- Iniciativas remitidas, en su caso, por la Junta de Portavoces.</u>**

**<u>40.1.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la modificación en el trayecto y las paradas de la línea 9.</u>**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

"Borja Corominas Fisas, Portavoz del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Servicio a las Personas, sobre la modificación en el trayecto y las paradas de la línea 9.

JUSTIFICACIÓN

Son innumerables las quejas de los donostiarras desde que este consistorio decidió modificar el trayecto y las paradas de la línea 9 Dbus.

En su día el Departamento de Movilidad aseguró que tenía intención de revisar las modificaciones ante la cantidad de quejas recibidas. Pero pasan los meses y

eta 9. linea Okendo kalean gelditzen da oraindik, eta ez Boulevardean, lehen egiten zuen bezala.

Linea horren erabiltzaileak kexu dira, gainera, aldaketaren aurretik, 9. linea eta 29. linea, Boulevardeko eta Askatasunaren hiribideko geraleku berean gelditzen zirela, eta linea baten eta bestearen artean 5 minutuko aldea zegoela. Horrela, bat galduz gero, beste linea har zezaketen, baina orain biak aldi berean igarotzen dira eta geraleku desberdinetan gelditzen dira.

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Zergatik jarraitzen du Dbusen 9. lineak Boulevardean gelditu gabe, Egiako bizilagunek han gelditzea eskatu arren?
2. Jasotako kexa mordoa ikusita, Mugikortasuneko ordezkariak egindako aldaketak aztertuko zituztela adierazi bazuen ere, zergatik ez da oraindik horren inguruan ezer egin?
3. Zer egiteko asmoa duzue horren inguruan?
4. Zer dela eta ez da berreskuratu 9. linearen ohiko ibilbidea oraindik?
5. Udal Gobernuak ba al du hori egiteko asmorik?
6. Hala bada, noiz?
7. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

Donostia, 2025eko ekainaren 6a

Borja Corominas Fisas
Udaleko Talde Popularraren bozeramailea”

Olatz Yarza andreak hitz egin du puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**40.2.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Intxaurrondoko anbulatorioko irisgarritasun faltari buruzkoa.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

“Vanesa Vélez De Pablos Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, Intxaurrondoko anbulatorioko irisgarritasun faltari buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertzeko.

la línea 9 sigue parando en la calle Okendo y no en el Boulevard como hacia antes.

Los usuarios de esta línea se quejan además de que antes de la modificación, el 9 y el 29 paraban en la misma parada en el Boulevard y en la Avenida y que había unos 5 minutos de diferencia entre una línea y otra, lo que permitía que si perdías uno podían coger la otra línea, pero ahora las dos pasan a la vez y en paradas distintas.

Por esos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que las línea 9 de Dbus sigue sin parar en el Boulevard como piden los vecinos de Egia?
2. ¿Cuáles son las razones por las que pese a manifestar la delegada de movilidad que estudiarían las modificaciones antes la multitud de quejas recibidas aún no se ha hecho nada?
3. ¿Qué piensan hacer al respecto?
4. ¿Cuáles son las razones por las que no se ha retomado el trayecto habitual de la línea 9?.
5. ¿Tiene intención de hacerlo?
6. En caso afirmativo ¿cuándo?
7. En caso negativo ¿cuáles son las razones?

En San Sebastián, a 6 de junio de 2025

Borja Corominas Fisas,
Portavoz del Grupo Municipal Popular”

Interviene en este punto la Sra. Yarza Garagorri, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**40.2.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre la falta de accesibilidad en el Ambulatorio de Intxaurrondo.**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

“Vanesa Vélez De Pablos, Concejala del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Servicio a las Personas, sobre la falta de accesibilidad en el Ambulatorio de Intxaurrondo.

JUSTIFIKAZIOA

Intxaurrondoko bizilagunek urteak daramatzate Intxaurrondoko anbulatorioko irisgarritasun-falta salatzen. Gai hori luze eta zabal eztabaidatu da udal honetako batzordeetan eta udalbatzaren bilkuretan eta, hala ere, ez dugu erantzunik edo inolako konponbiderik lortu arazo horren inguruan. Kontuan hartu behar da, osasun-ekipamendu bat denez, mugikortasun-arazoak dituzten eta adinekoak diren pertsona asko joaten direla bertara, eta beraz, ezinbestekoa eta premiazkoa da arazo hori konpontzea.

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Gobernu Taldeak zergatik ez dio heldu oraindik Intxaurrondoko anbulatorioko irisgarritasun-faltaren arazoari?
2. Gobernu Taldeak ba du arazo hori 2025eko ekitaldi honetan konpontzeko asmorik?
3. Erantzuna baiezkoa bada, zer urrats edo izapide egiten ari da? Edo zein pauso edo izapide egiteko asmoa du? Noiz egingo ditu arazoa konpontzeko behar diren obrak?
4. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?
5. Gobernu-taldeak ba al du asmorik kokapen berri bat aztertzeko, Intxaurrondo bezalako auzo populatu batek anbulatorio egoki bat izan dezan?
6. Erantzuna baiezkoa bada, noiz? Egin badu, zein da azterlan horren emaitza?
7. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

Donostia, 2025eko ekainaren 5a

Vanesa Vélez De Pablos
PP udal taldeko zinegotzia”

Carlos Garcia eta Jorge Mota jaunek hitz egin dute puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

JUSTIFICACIÓN

Los vecinos de Intxaurrondo llevan años denuncia la falta de accesibilidad en el Ambulatorio de Intxaurrondo. Este es un tema debatido ampliamente en comisiones y plenos de este consistorio y, sin embargo, no hemos obtenido una respuesta ni ningún tipo de solución a este problema que es urgente e imprescindible tratándose del equipamiento que es, a donde acuden muchas personas con dificultades de movilidad y avanzada edad.

Por esos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno sigue sin abordar el problema de falta de accesibilidad del Ambulatorio de Intxaurrondo?
2. ¿Tiene el equipo de gobierno la intención de solucionar este problema en el actual ejercicio 2025?
3. En caso afirmativo, ¿qué pasos o trámites está dando o piensa dar al respecto?, ¿cuándo va a acometer las obras necesarias para solucionar el problema?,
4. En caso negativo, ¿por qué?
5. ¿Tiene el equipo de gobierno la intención de estudiar una nueva ubicación para que un barrio tan populoso como Intxaurrondo tenga un ambulatorio en condiciones?
6. En caso afirmativo, ¿cuándo?, si ya lo ha hecho, ¿cuál es el resultado de dicho estudio?
7. En caso negativo, ¿por qué?

En San Sebastián, a 5 de junio de 2025

Vanesa Vélez De Pablos
Concejala Grupo Municipal PP”

Intervienen en este punto los Sres. García Hernández y Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**<u>40.3.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, hiriko disuasio-aparkalekuei buruzkoa.</u>**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

**<u>40.3.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre aparcamientos disuasorios en la ciudad.</u>**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

"Vanesa Vélez De Pablos Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikuluaren babesean, hiriko disuasio-aparkalekuei buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

2023ko urtarrilean, "Hirian trafikoa murrizten lagunduko duten disuasio-aparkalekuak ezartzeko analisiari" buruzko txostena aurkeztu zen, eta, urte bereko abenduan, 2024-2029 Hiri Mugikortasun Jasangarriko Plana.

Aurten, 2025ean, IGEa ezarri dugu, eta, azken hilabeteetan, gobernu-taldeak hainbat proiektu aurkeztu ditu, hala nola Illunbekoa, eta asko dira ibilgailuen trafikoari eta aparkalekuei eragiten dizkieten obrak, hala nola Donostia Ospitaleko obrak eta topoarekin zerikusia duten guztiak.

Udalaren webgunean 3 disuasio-aparkaleku ageri dira: Igara, Unibertsitateak eta Miramon.

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Udalaren webgunean ageri diren eta aipatutako dokumentuak jasotzen dituzten hiru disuasio-aparkalekuez gain, Gobernu Taldeak zergatik ez du beste aukerarik aurkeztu ?
2. Gobernu Taldeak ba al du asmorik hirian disuasio-aparkaleku gehiago egiteko?
3. Erantzuna baiezkoa bada, zer urrats ematen ari da edo emateko asmoa du? Noiz? Zein? Zenbat plaza izango ditu bakoitzak?
4. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?
5. Gobernu Taldeak ba al du asmorik, iaz egin zen bezala, udan aparkaleku publiko nagusien prezioak igotzeko, era horretan, "auto-pilaketak murrizteko"?
6. Hala bada, zertan datza plan horrek?
7. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik? Iaz erabaki hori hartzeko baldintzak ez al dira aurten betetzen?

Donostia, 2025eko ekainaren 5ean

"Vanesa Vélez De Pablos, Concejala del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Servicio a las Personas, sobre aparcamientos disuasorios en la ciudad.

JUSTIFICACIÓN

En enero de 2023 se presentó el informe sobre el "Análisis para la implantación de posibles aparcamientos disuasorios que contribuyan a la reducción del tráfico en la ciudad" y, en diciembre del mismo año, el PMUS 2024-2029.

Estrenamos este 2025 con la implantación de la zona la ZBE y, en los últimos meses, el equipo de gobierno ha ido presentando diferentes proyectos, como el de Ilumbe, y son numerosas las obras que afectan al tráfico rodado y al aparcamiento, como las obras en el Hospital Donostia y todas las que tiene que ver con el Topo.

En la web del Ayuntamiento son 3 los aparcamientos disuasorios que se presentan: Igara, Universidades y Miramón.

Por esos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no ha presentado otras alternativas a las 3 que encontramos en la web del Ayuntamiento y que recogen los mencionados documentos?
2. ¿Tiene el equipo de gobierno la intención de hacer de aumentar el número de aparcamientos disuasorios de la ciudad?
3. En caso afirmativo,¿qué pasos o trámites está dando o piensa dar al respecto?,¿cuándo?, ¿cuales?,¿qué capacidad tendrá cada uno de ellos?
4. En caso negativo,¿por qué?
5. ¿Tiene el equipo de gobierno la intención de aumentar los precios de los principales parkings públicos durante el verano, "con el objetivo de reducir la congestión del tráfico", como hicieron el año pasado?
6. En caso afirmativo,¿en qué condiciones?
7. En caso negativo,¿por qué?, ¿no se dan las condiciones que se dieron el año pasado para tomar esta decisión?

En San Sebastián, a 5 de junio de 2025

Vanesa Vélez de Pablos
PP udal taldeko zinegotzia"

Olatz Yarza andreak eta Jorge Mota jaunak hitz egin dute puntu hauetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

**40.4.- Interpelazioa, PP taldeak aurkeztua, Miserikordia kaleko obrei buruzkoa.**

Jorge Mota jaunak interpelazio hau irakurritzat eman du:

"Vanesa Vélez De Pablos Talde Popularreko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 134. artikulua oinarri, Miserikordia kaleko obrei buruzko INTERPELAZIO hau aurkezten dio Eneko Goia Laso alkateari, Pertsonentzako Zerbitzuen Batzordean aztertzeko.

JUSTIFIKAZIOA

2025eko aurrekontuetan 200.000 €-ko partida bat dago Miserikordia kaleko puntu kritikoa hobetzeko (601.08). Partida hori aurtengo ekitaldirako gaitu zen, hori gauzatzea ia ezinezkoa izango zela jakinda. Izan ere, Adifek baldintza gisa jarri zuen oraindik egiteke dituen obrak amaitu behar dituela lehenbizi, eta gero egin ahal izango direla hobekuntza-lanak kale horretan.

Hori dela eta, hau da gure

INTERPELAZIOA

1. Gobernu Taldeak zergatik ez du partekatu gainerako udal-taldeekin zein egoeratan dagoen aurrekontu-partida hori?
2. Gobernu Taldeak aurreikusten al du noiz egingo diren obra horiek?
3. Erantzuna baiezkoa bada, informazio hori partekatu al dezakezue?
4. Erantzuna ezezkoa bada, zergatik?

Donostia, 2025eko ekainaren 5a

Vanesa Vélez De Pablos
PP udal taldeko zinegotzia"

Juan Marrero jaunak hitz egin du puntu honetan. Esandakoak Bilkuren Egunerokoan grabatu dira.

Vanesa Vélez De Pablos
Concejala Grupo Municipal PP"

Intervienen en estos puntos la Sra. Yarza Garagorri y el Sr. Mota Iglesias, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

**40.4.- Interpelación, presentada por el Grupo PP, sobre las obras de la calle Misericordia.**

El Sr. Mota Iglesias da por leída la siguiente interpelación:

"Vanesa Vélez De Pablos, Concejala del Grupo Popular, al amparo del vigente artículo 134 del Reglamento Orgánico del Pleno, presenta la siguiente INTERPELACIÓN al Alcalde, D. Eneko Goia Laso, en la Comisión de Servicio a las Personas, sobre las obras la calle Misecordia.

JUSTIFICACIÓN

El presupuesto de 2025 contiene una partida de 200.000€ para la mejora del punto crítico de la calle Misericordia (601.08), partida que se habilitó para el presente ejercicio sabiendo que prácticamente sería imposible ejecutarla, debido a los condicionantes marcados por Adif para la realización de las obras pendientes que han de ser previas a la mejora de ese punto.

Por esos motivos presentamos la siguiente:

INTERPELACIÓN

1. ¿Cuáles son los motivos por los que el Equipo de Gobierno no ha compartido con los demás grupos municipales en qué estado se encuentra dicha partida presupuestaria?
2. ¿Tiene el equipo de gobierno la previsión de cuándo se realizarán dichas obras?
3. En caso afirmativo, ¿pueden compartir dicha información?
4. En caso negativo, ¿por qué?

En San Sebastián, a 5 de junio de 2025

Vanesa Vélez De Pablos
Concejala Grupo Municipal PP"

Interviene en este punto el Sr. Marrero Vizcaíno, en los términos que resultan de la grabación de la sesión incorporada al Diario de Sesiones.

Eta, beste aztergairik ez denez, Batzordeburuak bilera amaitutzat jo du, goiburuan adierazitako eguneko 14:24an eta NIK, IDAZKARI NAIZEN ALDETIK, horren guztiaren FEDE EMATEN DUT.

Y, no habiendo más asuntos por tratar, la Presidencia declara terminada la sesión a las 14:24 horas de la fecha expresada en el encabezamiento, de todo lo cual, YO, LA SECRETARIA, DOY FE.

**BATZORDEBURUAK O.E./**
**V.º B.º DEL PRESIDENTE:**

**Juan Marrero Vizcaíno**